

60 X DA

Abenduaren 5etik 8ra bitartean,
Durangoko Azoka euskaltzale, sortzaile
eta kulturgileen topagune izango da.
60. edizio honetan, 1.000 nobedade
baino gehiago aurkeztuko dituzte.

www.bodegaslauna.com

Launa

Arabar Errioxa



Wine Name	Vintage	Score (Puntu)	Category
Laztan	2022	96	GOURMET DGA
Amaita	2022	96	GOURMET DGA
Ikunus	2021	94	GOURMET DGA
Launa Selección Familiar Erreserba	2019	94	GOURMET DGA
Launa Selección Familiar Zuria	2023	92	GOURMET DGA
Launa Selección Familiar Ondua	2020	93	GOURMET DGA
Launa Zuria	2024	91	GOURMET DGA
Launa Ondua	2021	90	GOURMET DGA

TALAIA – LANDAKOGUNEA

ABENDUAK 5

11:00 - 12:00 DOITU: digitalizazio osasuntsu eta libre baten aldeko gida. Izarkom *Aurkezipena*

12:15 - 13:00 AIZU! Aldizkaria. AEK *Tailerra*

13:00 - 14:00 Zer egingo dugu idazketarekin? Yolanda Arrieta, Nerea Loiola eta Amaia Egidazu. 1545 argitaletxea *Mahai-ingurua*

16:00 - 16:30 Foru jauregian: Bizkaiko historian barrena 1900/2025. Joseba Agirreazkuenaga Zigorraga. Bizkaikoa *Aurkezipena*

16:30 - 17:00 Mendizaletasun osasuntsu eta segururako eskuliburua. Kepa Lizarraga. Bizkaiko Foru Aldundia *Aurkezipena*

17:00 - 18:00 Garen piztiaz beste: hitz egin liteke euskal transfeminismoaz? Iñi Etxezarreta eta Elene Lopetegi. Txalaparta *Mahai-ingurua*

18:00 - 19:00 Sortzaileek herria: Geuretik Sortuak kultur egitasmoa. Udalbiltza partzuergoa *Aurkezipena*

19:00 - 19:30 Manuel de Ynchausti eta Lurdes Euzko Aur-Etxea kolonia (Jatsu 1937-1939): euskal gerrako haurren babes-etxea. Jon Urutxurtu. Bizkaiko Foru Aldundia *Aurkezipena*

19:30 - 20:00 Ahotsak gorpuztuz: euskal

emakumezkoen literatura (1970-1985). Jon Kortazar eta Elisabete Alberdi. EHU *Aurkezipena*

ABENDUAK 6

11:00 - 12:00 Euskara Euskal Herriko gazteen bizitzetan. Leire Casamajou, Pello Enbeita, Iraia de la Torre eta Irati Alvarez. EHE eta Gazte Euskaltzaleen Sarea *Mahai-ingurua*

12:00 - 13:00 Jon Mirande: XX. mendeko euskal literaturaren ardi beltza. Katixa Dolhare, Gorka Bereziartua, Santi Leone eta Mikel Soto. Alberdania eta Elkar *Mahai-ingurua*

13:00 - 13:30 Martxelo Otamendi: handira jotzeko kazetaritza. Martxelo Otamendi eta Garbiñe Ubeda. Berria, Elkar eta Jakin *Aurkezipena*

13:30 - 14:00 Bizi baratzea: lurrari begiratzten diogunon orria. Jakoba Errekondo. Argia *Aurkezipena*

14:00 - 14:30 Euskararen mende magikoak. Juan Martin Elexpuru. Elkar *Aurkezipena*

15:30 - 16:00 Ezinezkoaren alde. Iñigo Martinez Peña. Elkar *Aurkezipena*

16:00 - 16:30 Emakumeen boterea eta komunitatearen iraultza. Aiora Enparantza. Katakarak *Aurkezipena*

16:30 - 17:00 Etxearen korapiloa nola askatu. Unai

Fernandez de Betoño eta Iratxe Delgado. UEU *Aurkezipena*

17:00 - 17:30 Lehen astinduak, lurraren altxamenduak. Eider Beobide. Katakarak *Solasaldia*

17:30 - 18:00 Bizitza baten txatalak: andre bat lurrari emana. Onintza Enbeita. Argia *Aurkezipena*

18:00 - 19:00 Gazako istorioak: bizitza gerren artean. Mikel Ayestaran, Ibon Plazaola eta Mikel Reparaz. Alberdania *Mahai-ingurua*

19:00 - 19:30 Dolu-egunerokoa. Roland Barthes, Danele Sarriugarte (itzul.). Katakarak *Solasaldia*

19:30 - 20:00 Heziketa librea. Ane Ablanedo eta Olatz Lasagabaster. Hik Hasi *Aurkezipena*

ABENDUAK 7

11:00 - 12:00 Durangoko Azokaren ikerketa soziologikoaren emaitzak. Gerediaga elkarte eta Siadeco *Aurkezipena*

12:00 - 13:00 Euskal PEN berrasmatuz. Batzar irekia. Laura Mintegi, Urtzi Urrutikoetxea, Paul Bilbao eta Xabi Paya. PEN kluba *Solasaldia*

13:00 - 13:30 Esnatu ala hil. Iñaki lurrebaso eta Garikoitz Goikoetxea. Elkar *Aurkezipena*

13:30 - 14:00 Joseba Sarrionandiaren literatura:

bitakora kaiera. Nerea Eizagirre, Mikel Ayerbe eta Amaia Elizalde (Mikel Laboa Katedra). EHU *Aurkezipena*

14:30 - 15:00 Mister Eleizegi. Joseba Tapia eta Koldo Izagirre *Aurkezipena*

15:30 - 16:00 El pradalismo. Ahoztar Zelaiaeta. Txalaparta *Aurkezipena*

16:00 - 16:30 Pedagogismoaren gezurtapen bat. Tere Maldonado. Elkar *Aurkezipena*

16:30 - 17:00 Marx eta Keynes: ekonomia mistoaren krisia. Garazi Goldarazena. Katakarak *Aurkezipena*

17:00 - 17:30 Rosa Parks: nire istorioa. Amaia Astobiza. Katakarak *Aurkezipena*

17:30 - 18:00 Etxeko leihoak unibertsoa. Alba Garmendia. Txalaparta *Aurkezipena*

18:00 - 19:00 Euskadi Literatura saridunak. Unai Elorriaga Lopez de Letona, Karmele Mitxelena Etxebeste eta Itxaso Del Castillo Aira. Moderatzailea: Ander Egiluz Beramendi. Eusko Jaurlaritza *Mahai-ingurua*

19:00 - 19:30 Ihauterien tradizio bizia: ohitura zaharretatik adierazpen berrietara. Thierry Truffaut eta Peio Heguy. Elkar *Aurkezipena*

19:30 - 20:00 Koplarik kopla. Xabier Berasaluze "Leturia". Elkar *Aurkezipena*

21:00 - 22:30 Kantu kontari: Bittor Kapanaga, izena eta

izana. Gontzal Mendibil, Xabier Amuriza eta Joseba Sarrionandia *Ikuskizuna*

ABENDUAK 8

11:30 - 13:00 Joxe Azurmendiri aitortza ekitaldia. Jakin Fundazioa eta zenbait sortzaile *Ikuskizuna*

13:00 - 14:00 Euskadi Literatura saridunak. Garazi Albizua Castela, Markos Zapiain Agirre, Maite Rosende Gutierrez eta Koldo Biguri Otxoa de Eribe. Moderatzailea: Ander Egiluz Beramendi *Mahai-ingurua*

14:00 - 14:30 Herri Urrats: III. maketa lehiaketaren aurkezipena eta binilo bikoitzaren aurkezipena. Koldo Rodriguez. Herri Urrats *Aurkezipena*

15:30 - 16:00 Sorginak, putak, terroristak. Indarkeria matxistaren ertzak: tortura politikoa. Olatz Dañobeitia. Txalaparta *Aurkezipena*

16:00 - 16:30 Gabriel Arestiren mandatua. Gabriel Aresti kultur elkarte eta Euskaltzaindia *Aurkezipena*

16:30 - 18:00 Denbora bizigarri baterako, ilustrazio erradikal berria eta promesaren denbora. Marina Garcés, Lorea Agirre, Idurre Eskisabel eta Olatz Mitxelena. Jakin, Kontseilua, TEKS eta Badalab *Aurkezipena*



Gertuko Koop S., Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9 48215 Iurreta - Bizkaia Tel.: 946 816 558 Erredakzioa: 946 232 523 Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrindia. Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga. Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri. Publizitatea: Goretti Alonso Armendia. Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala. Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa. Marketina: Deñe Izaga Yeregui. Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Durangoko Azokako koordinatzaile eta gunetako arduradunak, aurkezpenean.

60. edizioa Kulturaren Jaialdi legez heldu da

Abenduaren 5etik 8ra egingo dute 60. Durangoko Azoka; osasuntsu heldu da urteurren berezira, kopuru aldetik "inoizko handiena" aurkeztuta: 1.000tik nobedade baino gehiago eta 285 erakusmahai; Izaskun Ellakuriaga gogoratuko dute

Aritz Maldonado DURANGO
Durangoko Azokak 60 urteko ibilbidea egingo du aurten. Hala ere, zentralitatea data borobil baten ospakizunean ipini beharrean, "orain arteko egiteko moduari eusteari" eman diote garrantzia, Beñat Gaztelurrutia Gerediaga Elkarteko koordinatzailearen berbetan. Gaztelurrutiak azken urteetako goranzko joera azpimarratu du. Aurten, 1.026 kultur nobedade aurkeztuko dituzte 175 partaidek ipiniko dituzten 285 erakusmahaietan; "inoizko kopururik handiena", Gaztelurrutiaren berbetan. Gainera, gune berri bi egongo dira aurten: zuzeneko podcasten plaza izango den Berbagailua, eta Arte Ederren plaza izango den Atarte. "Euskal kultura sortzen doazen adierazpen eta korrante berrietara moldatzen dabil, eta lanean gabiltza esku artean dugun Kulturaren Jaialdi hau ahalik eta anitzena eta koloretsuena izan dadin" gaineratu du Gaztelurrutiak. Horrez gainera, gaueko ikuskizunak ere berreskuratuko dituzte edizio honetan.

60. Durangoko Azokak abenduaren 5ean zabalduko ditu ateak,

goizean. Inaugurazio ekitaldia Szenatokian egingo dute, 19:00etan, eta bertan Izaskun Ellakuriaga kazetaria presente izango dute; urte luzez Durangoko Azokaren antolakuntza aritu zen Gerediaga elkarte kidea uztailen zendu zen.

Palestina gogoan
Bestalde, azokak iraungo duen egunetan palestinarren aurkako genozidioa ere izango dute gogoan. Horrela, azokan parte hartuko duten denei gonbit egin diete pegatina bat ipintzeko. Horrez gainera, azokak geldialdia egingo du abenduaren 7an, 14:00etatik 14:30era. Tarte horretan ez da aurkezpenik egingo eta elkarretaratzea egingo dute Landako Gunearen inguruan.

Trena, gauez
Durangoko Azokak iazko ordutegia mantenduko du. 10:30ean zabalduko dute Landako Gunea, eta 20:00etan itxi. Abenduaren 8an, ostera, 18:00etan itxiko dituzte ateak. Garraioari dagokionez, nobedade legez, 5eko, 6ko eta 7ko gauean tren zerbitzua egongo da.

**% 100
URA GARA**

*Bizkaia etorkizunera egokituta zainduz,
inbertituz eta mantenduz.*

**Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa**
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consorciodelaguas.eus



"Erantzun kolektiboak sortu gura ditut erakusketagaz"

IRATI BAZETA SORTZAILEA

Irati Bazeta artista abadiñarrak irabazi zuen iazko Sormen Beka, 'Harien isla' margolaritza proiektuagaz. Urtebetean lanean egon eta gero, abenduaren 5ean inauguratuko du erakusketa, Arte eta Historia Museoa, 13:00etan

Ekaitz Herrera SORMEN BEKA

laz, beka irabazi zenuenean, euskararen inguruko hainbat galdera sortu gura zenuen. Topatu duzu erantzunik?

Galderei erantzun baino gehiago, jendeagaz elkarrizketa moduko bat sortzea izan da asmoa. Ikusleak margolanekin, ispilu batzuekin eta galdera batzuekin topo egingo du aurrez aurre. Horrenbestez, erantzunak kolektiboki eraikitzeko asmoa du erakusketak.

Euskararen kezka zehatzei ipini diezu aurpegia?

Eboluzio bat irudikatu dut. Lan batzuetan, kontzientziarik bako egoera hori irudikatu dut, hau



Irati Bazeta.

da, zapalduta egon arren horretaz jabetzen ez zaren momentu hori. Eta beste batzuetan begiak zabaltze hori ageri da, ahalduntze kontzientea. Euskarak jasandako hainbat zapalkuntza eta indarkeria islatu dut, baita euskalgintzak egindakoak ere. Azkenik, autokritikarako tarte dago. Azken horretan, euskaldun motak estereotipoen edo aurreiritzien arabera baztertzen ote ditugun hausnartu dut.

Zein teknika erabili duzu?

Lanik gehienak akrilikoak dira, eta, erakusketaren izenburuak dioen moduan, hariak irudikatu ditut askotan, elementu sinboliko legez. Hariak oso presente daude, horiek lotzen baikaituzte gauzetara, sistemara. Gero, olioeko pare bat lan daude. Erakusketako koadrorik handienak teknika horregaz egin ditut. Beste lan batzuetan *collage* teknika erabili dut. Sareak daude hor, zinta itsasgarria, ANBOTO astekariaren txatalak ere bai!

Eta koloreen erabilera? Zelan erabaki duzu batzuk eta besteak erabili?

Urre kolorea nahiko presente dago, kolore horrek boterea

sinbolizatzen duelako etengabe. Batzuetan, botere hori zapaltzailea izan daiteke, eta beste batzuetan ahalduntzeak dakarren boterea. Hori erabili dut egoera bat ala bestea irudikatzeke. Gero, urdina dezente sartu dut, halako sakontasun bat ematen duelako, eta gorriagaz gordintasuna irudikatu dut, odola. Oro har, kolore biziak erabili ditut. Ez nuen pastel-kolorerik erabili gura, horrek ez bustitzea edo ez lerratzea irudikatu dezakeelako. Eta gero, badago landa eremuko emakume baten koadroa ere. Hor marroi asko erabili dut, lurra irudikatzeke eta lur horren hizkuntza irudikatzeke.

Urtebete honetan sentitu duzu presiorik?

Zortzi orduko lanpostu bat daukat, horrek ematen dit bizibidea. Beraz, diziplina apur bat behar izan dut. Astero-astero topatu behar duzu astia proiektua lantzeko. Edozelan ere, ez da prozesu larria izan. Urri aldera presio gehiago igarri dut. Izan ere, perfekzionista izatera gaxtagoa izaten da lan bat amaitutzat ematea.

bed's Atsedeenik onena zure ondoan

Bed's Durango Koltxoak, oinarriak, burkoak eta askoz gehiago atsedeenaren marka onenetan:

C/ de Alluitz, 1 | 944 005 980

pikolin **BULTEX** **latiflex** **pardo** **TEMPUR**

Azkonizaga

Edari banaketa

GARAGARDOAK • ARDOAK • LIKOREAK
ESNEA • URA • FRESKAGARRIAK

Lejarza, 1 48213 Izurtza (Bizkaia) Tel: 94 681 06 52 / 615 78 55 58
azkonizaga@azkonizaga.com

AgroPaper®
NEKAZARITZA
JASANGARRI BATERAKO
NEGUTEGIA

Smurfit Westrock

Aritz Maldonado DURANGO

Iratxe Reparazek Durangoko Azokaren unibertso bisuala proposatu du, 60 urteko ibilbidea ordezkatzeko duena. "Durangoko Azoka mugimenduan dagoen zerbait da, aldatzen dena, erabiltzen dena, eta jendeak zapaltzen duena ere. Hori irudikatzen du iruditegiak, besteak beste", esan du Reparazek.

Durangoko Azokaren unibertso bisuala osatu duzu.

Niretzat sorpresa handia izan zen; izan ere, betidanik egin nahi izan dudana zerbait zen Durangoko Azokaren iruditegia. Amets bat bezalakoa zen. Momentuan zalantzak sortu zitzaikidan, baina egun pare batean pentsatu eta gero, baiezkoa eman nuen. Irailarako zerbait erakustea nahi zuten, baina beraien harri durarako uztailean bertan lan asko nuen aurreratuta. Esan dudana moduan, proiektuak ilusio handia egiten dit. Aurten, zerbait ezberdina egin nahi zuten. Orain artean, kartela egiten zuten eta hortik beste formatuetara moldatu, baina horrela nahiko mugatuta zaudela uste zuten. Gaur egun, markeen komunikazioa eraldatzen ari

"Azokaren eraldaketa irudikatu nahi nuen"

IRATXE REPARAZ ARTE ZUZENDARIA

Diseinatzaile arbizuarrak "ilusio handiz" hartu du 60. Durangoko Azokaren unibertso bisuala sortzeko erronka; bizi osoa darama azoka bisitatzen



Iratxe Reparaz. IBAI SALAZAR

da, eta, lehen, formatu bakarra diseinatu eta besteetara moldatzea nahikoa zen; baina gaur egun, markak likidoagoak dira. Orduan, oinarritik pentsatu behar da, formatu desberdinetan. Azokakoek bazekiten zerbait desberdina nahi zutela, zehazki zer nahi zuten jakin ez arren. Zerbait sortu eta formatu guztiak inpregnatzea nahi zuten, eta adibide modura Zetak taldearekin sortu nuen tipografia aipatu zidaten. Hori izan zen abiapuntua. Gainera, 60. urteurrenarekin kointziditu du, eta, gainera, Kulturaren Jaialdia leloarekin. Pertsonalki asko gus-tatzen zitzaidan hau bera, iruditegi moderno, minimalista eta

aldi berean indar handia duena koloreengatik. Marraztu ahala filosofatzea gustatzen zait, eta pentsatu nuen azokak ibilbide desberdinak egin dituela 60 urte hauetan, mugitu egin dela, baita euskara ere, eta orduan 60 hori hartu eta deformatu egin nuen; hor konturatu nintzen kartel infinituak egin zitezkeela, eta, gainera, ibilbide hori formatu askotan egin zitekeela. Askotan esaten dut nire diseinatzaile lana hizkuntza bat sortzea dela, eta horixe egin dut, azokaren hizkuntza garatu.

Proposamen berritzailea izatea presioa ala erronka da?

Onerako eta txarrerako, gero eta gizarte bisualagoan bizi gara; gaur egun mila estimulu ditugu, eta lehia handia dago ea nork izan irudirik indartsuena. Horrek presioa sortzen du. Durangoko Azokak ez ezik, bertan dauden artistek ere gehiago zaintzen dute irudia, eta apustu argia ikusten da. Horrek sinergia politak sortzen ditu. Nik presio handia jartzen diot neure buruari, proiektuan sartuta asko ikasiko nuelako. Asko gozatu dut proiektu honekin.

Euskararekin,
sortu ginenetik

EROSI
+ BAZKIDE
TOKI
EROSKI



60. DURANGOKO AZOKA
2025eko abenduaren 5etik 8ra



Hemengoa
izatea ona da



J. Derteano LITERATURA

Simon Gandarias (1897-1949) Utah, Nevada, Kalifornia, Idaho eta Oregon aldean ibili zen. Joseba Sarrionandiak hark utzitako bertso sortak eta istorioak bildu ditu liburuan.

Zelan jakin zenuen Simonen berri?

We are plenty in here... abestiaren berri orain 50 urte, herri literaturari buruzko Piarres Lafitteren saiakera batean. Andu Lertxundik, Adolfo Arejitak eta beste batzuek ere aipatu dute. Simon Gandariasen berri, idatzi zituen beste bertsoena, orain urte bi, Manu Sotaren *Viaje a Idaho 1938* eskuizkribua ustekabea aurkitu dugunean.

Bere figuratik zerk erakarri zintuen?

We are plenty in here, Oskorriren bertsoan *Idahoko berriak* deitzen den abesti horren autoreta eta kontestua interesatu zitzaidan lehenengo. Gero, bizitza osoa Estatu Batuetan emandako bizkaitar baserritarraren figura hori. Oso pertsonaia tipikoa da, baina galdera asko planteatzen ditu.

Zer galdera?

Ba, adibidez, zergaitik joaten ziren Bizkaiko baserritarrok eta arrantzaleok, XX. mendearen hasieran Bilbon ja zegoen hazkunde ekonomikoagaz Nevadako basamortuetaraino artzain? Beste galdera bat, zergaitik ezkontzen ziren herriko neskekin, nahiz eta emaztea gero Oregona joan ez? Zer hartu-eman mota zen hori? Beste bat, zergaitik egiten zituen bertsoak euskaraz 17 urteagaz Far Westera heldu eta ziudadania amerikanoa gura zuen Sam Gandarias horrek? Beste galdera bat, zer da "herri literatura"?

Liburuko lehen zatia haren biografia da. Iturri askotatik edan duzu? Jose Manuel anaiaren partekoan



Joseba Sarrionandia idazlea.



Gandarias, Ameriketara heldu eta lasterrera, liburuan jasotako argazki baten.

"Gandarias pertsonaia tipikoa da, baina galdera asko planteatzen ditu"

JOSEBA SARRIONANDIA IDAZLEA

Joseba Sarrionandiak Simon Gandarias artzain eta bertso egile ezezagunaren figura berreskuratu du bere lan berrian: '*We are plenty in here* Euzkadin eginak'

argazkiak, Laureana Elortza emaztearen ahizparen ondokoan orotzapeen batzuk. Simonen memoria eten egin zen semea hildakoan, hiru ilobek ez zuten izan aitaren berririk. Ameriketako dokumentuak Maitena Irigorrik Idahora joanda aurkitu ditu, Boise Capital News egunkarian-eta. **Bigarren zatian bere bertso sortak jaso dituzu. Aukeraketa bat da?**

Ez dira asko, hamahiru edo hamalau. Baten batzuk errekupe-

ratu ditugu bakarrik, eta denak ez daude osorik. Bertso gehiago egingo zuen, jakina. Baina ez inongo artxibo nazionalen gordetzeko asmoagaz: bertso sorta baten azken orria alargunaren Bilboko etxeko zopa-ontzi zahar baten barruan aurkitu dute.

Simonek zeintzuk gai jorratzen zituen?

Lehenengo testua 29ko Krakekoa da. 1929ko urrian, badakizu, krisi ekonomiko itzela izan zen

Estatu Batuetan, 29ko Depresioa, eta itsasontzi bidaiak suspenditu ziren. Gabonetan, John Be-laustegi ama bisitatu ezinik geratu zen, eta Simonek bere lagunak amari bidaltzeko egin zituen bertsoak. 29ko Krak horri Samek ematen dion izena polita da: "Herbert Hoover-en panikua". Herbert Clark Hoover hori presidentea zen Depresio Handiaren denboran. *We are plenty in here* Boiseko prostituzio gi-

roari buruzkoa da, erdi ingelesez eta erdi euskaraz, hizkuntza konbinazio arraroan. *Al Berro* Jordan Valley-ko "fitelari" bati buruzkoak dira, Alberto Berro-jalviz. "Fitelari" boxeolari, *fight*-egaz egindako berba da. Beste bertso batzuk periodiko-anuntzioak dira, Sam Gandariasek Ontarion zeukan Elk Cigar Store tabernaren propaganda. Badiara parranda eta mozkor abestiak, Sam alkohol trafikoagaitik atxilotu zuten Lege Lehorren aldian. Beste bertso batzuetan amaz edo jaiotetxeaz akordutzen da.

Liburuko QR kodeen bitartez bertsoak abestien entzun daitezke.

Poemak irakurri egiten dira, isilean. Baina bertsoak eta abestiak entzuteko dira, ezta? Liburuan entzunezko batzuk proposatzen dira. Aspaldikoak, Oskorriren *Idahoko berriak*, Gorka Urbizu eta Peiremans-en *Zortziak bat* eta Estitxu Roblesen *Elantxobetarra naiz*. Orain, Luhartz taldeak Samen bertsoak musikatu ditu, eta liburuagaz abestiak entzun daitezke.



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D - 48200 Durango
pzubizarreta@gmail.com
Tel.: 946 550 049 / 695 784 963

Anboto
TABERNA • JATETXEA



Goienkale kalea, 14
Durango - Tel.: 946 811 020



AMAYA
AUTOEN KONPONKETAK S.L.

UAI, 1 industrigunea (Orozqueta errepidea)
48215 IURRETA / Bizkaia
126 Posta Kutxa Durango

ofizinako telefonoa: 682296161
tallerreko telefonoa: 646762022
e-maila: oficina@amayaaautoreparaciones.com
www.amayaaautoreparaciones.com



ESKAINZA

0 urtetik 18
urtera bitarteko
hezkuntza
eskaintza.



HELBURUAK

Ikasle euskaldun,
kritiko eta
eleanitzak.



ELIKADURA

Jantoki
Eko-Arduratsua
ziurtagiria.
Bertokoa,
ekologikoa eta
sasoikoa.

Matrikulazioa
urte osoan zabalik



IRUDIENEA – ZUGAZA

ABENDUAK 5

10:30 - 12:45 Nola sortu dokumental bat. Traola produkzioak *Tailerra*

10:30 - 12:50 Eduki digitala euskaraz DA!. Pantailak Euskaraz dinamika *Solasaldia*

13:00 - 13:30 'Eden' soinu-fikzioaren 3. denboraldia. EITB *Aurkezipena*

13:30 - 14:30 Ikusgela: historia ulertzeko bideoak. Euskal Wikilarien Kultura Elkartearen proiektua eta Bira produkzioak *Aurkezipena*

14:30 - 15:00 Amets hegalaria. Arrate Fernandez Itxaso *Film emanaldia*

15:00 - 16:30 Enarak. Beñat Iturrioz Perez *Dokumentala*

16:30 - 17:30 Andereño Monika gogoratzen: 1934ko ikastolaren historia. Sonia Francisco, Itziar

Barrenetxea eta Josi Sierra *Dokumentala*

17:30 - 18:00 Gure oilarra kanpoan da. Carlota Galilea *Film emanaldia*

18:00 - 19:30 Kantauri. Xabi Mina, Isaias Cruz eta Patxi Zubizarreta *Dokumentala*

19:30 - 20:50 Mugarik gabe: musika, erresistentzia eta elkartasun bidaia bat. Boris Guevara eta Mugarik Gabe Collective. Suargi Elkartea eta Zutarri Kultura Elkartea *Dokumentala*

ABENDUAK 6

11:00 - 13:00 Jone, batzuetan. Sara Fantova *Film emanaldia*

12:00 - 14:00 Piztiak. Amancay Gaztañaga. EITB *Aurkezipena*

13:00 - 14:30 Sorgina banaiz. Asisko Urmeneta *Dokumentala*

14:30 - 15:30 'Ezki kontu-kontari' bigarren denboraldia. Leire Bereikua Barinagarrementeria eta Iban Gonzalez Pagaldai. Gookapi *Aurkezipena*

16:00 - 17:00 Gazte laburmetraDA!. Bariazioak (Lur Olaizola Lizarralde), Barruko dardara (Maider Arruti), Egon ez zaren lekuetara itzultzeko (Hatortxu Rock, auzolanean) *Aurkezipena*

18:00 - 21:00 DemaS.A.: sortzaile amateurren arteko dema. Euskarazko film laburren finala. Taupa Euskaltzaleen Mugimendua *Lehiaketa*

ABENDUAK 7

10:30 - 11:00 Joseba Sarriónandien zinema paperak. Josu Martinez eta Joseba Sarriónandia. Pamiela *Liburu aurkezipena*

11:00 - 12:20 Erreplika. Pello Gutierrez Peñalba *Dokumentala*

12:30 - 13:30 Araba lehen alaba. Mikel Sanchez Duran eta Ariana RAC *Dokumentala*

13:30 - 14:00 Urdaibaiko sakrifizioa. Galder Irusta *Film emanaldia*

14:30 - 15:00 Olatu baten istorioa. Nagore Eceiza *Film emanaldia*

15:30 - 16:30 Mithy esploratzailea: Guatemala. Leire Bereikua Barinagarrementeria eta Iban Gonzalez Pagaldai. Gookapi *Aurkezipena*

16:30 - 17:50 Txillarreko sukaldaria. Asier Ibaibarriaga Aposta eta Edurne San Martin Larrañaga *Dokumentala*

18:00 - 19:50 Animo. Alex Tello Arostegi *Film emanaldia*

20:00 - 21:00 LaburmetraDA! *Film emanaldia*

20:30 - 22:00 Gaua. Paul Urkijo Alijo *Film emanaldia*

ABENDUAK 8

11:00 - 12:50 Akelarre: marearen kontra. Xabier Zabala eta Carlos Iglesias *Dokumentala*

12:00 - 13:50 'Irabazi arte' 5. denboraldia. EITB *Film emanaldia*

13:00 - 14:30 Lurdes Iriondo, ez gera alferrik pasako. Inge Mendioroz Ibañez *Dokumentala*

14:00 - 15:00 Loa eta Laia: bat, bi hiru, lau! Doinuak hamalau! Josu Bergara, Paul Caballero, Ane Martinez, Leire Aparicio, David Sanchez. Paraxut *Aurkezipena*

14:45 - 16:00 Sablehortz kapitaina eta Greleko kondesa. Familia zinema euskaraz. Zineuskadigaz elkarlanean *Film emanaldia*

16:00 - 18:00 Emakumeak herri kiroletan: geu ere bagara nor! Akaitze Kamiruaga. Labayru Fundazioa *Dokumentala*

18:00 - 19:30 Aldarriak. Cecilia Muñoz eta Juan Esteban Montoya *Dokumentala*

35 lan Irudienean, ikus-entzunezkoen loraldi betean

Zugaza izango da, aurten ere, Irudienea gunearen egoitza nagusia, eta Irati Agorria koordinatzailea

Aritz Maldonado DURANGO

Euskarazko zinemaren loraldi betean, Irudieneak 35 ikus-entzunezko lan hartuko ditu, aurten ekoiztitakoak. Askotariko lanak emango dituzte bertan, adin guztietarako jendearentzat,

urte oparoa izan den seinale: dokumentalak, film laburrak eta film luzeak. Abenduaren 6an, esaterako, Sara Fantova zuzendariaren *Jone, batzuetan* emango dute; proiektzioez gainera, zuzendari eta aktoreekin

solasaldiak ere antolatu dituzte. *Txillarreko sukaldaria* edo Lurdes Iriondori buruzko *Ez gera alferrik pasako* dokumentalak, eta *Irabazi arte* telesailaren hurrengo denboraldiaren aurrestreinaldia ere nabarmendu ditu Irati Agorria koordinatzaileak.

60. Durangoko Azokak gaueko egitaraua berreskuratu du. Horrela, Paul Urkijoren *Gaua* pelikularen emanaldi berezia egingo dute abenduaren 7an, 20:30ean.



Paul Urkijoren 'Gaua'. FILMAX

946 81 89 98
www.mañaria.eus



Akelarreren erromeriak, plazatik pantaila handira

Durangoko Bideografik ekoiztetxeak Akelarreren ibilbidea jasotzen duen dokumentala ondu du; Lekeitioko Zine Bileran estreinatu eta gero, Irudienean emango dute; hitzordua datorren abenduaren 8an izango da, astelehenean, 11:00etan

Aritz Maldonado DURANGO

Akelarre taldeak atal luzea eta garrantzitsua idatzi zuen euskal musikaren historian. Orain, hiru hamarkada georago, Durangoko Bideografik ekoiztetxeak haien ekarpena jasotzen duen dokumentala ondu du, *Akelarre: marearen kontra*. Xabier Zabala eta Carlos Iglesias durangarrek zuzendu dute dokumentala. Lekeitioko Zine eta Bideo Bileran estreinatu eta gero, ikus-entzunezko lana Durangoko Azokan ikusteko aukera egongo da. Emañaldia abenduaren 8an izango da, Irudienea gunean. Xabier Zabala zuzendariaren berbetan, 33 urteko jarduna 85 minutuko



Dokumentalaren grabazioko irudi bat. BIDEOGRAFIK

lan baten sartzea izan da erronkarik handiena dokumentala egiterakoan; "lan titanikoa", bere berbetan. "Hiru hamarkada baino gehiagoan, musikari, teknikari eta laguntzaile ugari igaro da taldetik. Gainera, urtean ehunka kontzertu ematen zituztenez, anekdota mordoa dute kontatzeko. Material hori kudeatzea izan da gaxena batez ere. Nekeza izan da artxiboko irudiak aukeratzea eta narrazioa jostea. Helburua ez zen ibilbidearen berri ematea bakarrik, istorio koherente bat kontatu gura genuen, inor kanpoan utzi barik", azaldu du Zabalak. Soinu banda aukeratzea ere "ez da erraza izan". 48 abesti sartu dituzte, eta beste asko kanpoan utzi behar izan dituzte.

Zuzendariaren berbetan, dokumentalak Akelarreren benetako dimentsioa aldarrikatzen du: "Jaietako talde soil legez ezagutzen dutenentzat haien benetako dimentsioa erakutsi gura izan dugu, eta plazarik plaza familia bat eta giro berezi bat sortu zuten musikari hauen lanaren balioa nabarmendu. Euren ibilbideak merezi duen epilogoia idatzi gura izan dugu". Dokumentala, musi-

ka talde baten ibilbidea ez ezik, jarrera eta garai baten kronika ere bada, beraz. Hain zuzen ere, "marearen kontra" ere egin zutela aldarrikatzen du. "Euskaraz egiteko hautua egin zuten, korrontearen aurka; eta lehenengoetarikoak izan ziren rocka plazetara eramaten. Protagonistek ere nabarmentzen dute hori lanean", gaineratu du Zabalak. Dokumentalean Joseina Etxebarriaren, Onintza Enbeitaren eta Xabier Solanoren testigantzak agertzen dira, besteak beste. "Musikariak, bertsolariak zein kazetariak elkarriketatu ditugu, eta denek diote erreferentziazkoak izan zirela; beste talde askorentzat ere bai, kalitate handiko musikariak zirelako", azpimarratu du Zabalak.

Aurkezpen bira

Durangokoaz gainera, Abadiñon ere egingo dute aurkezpena, abenduaren 3an. Zuzendariak bietara animatu ditu herritarrak, Durangaldean aukera gutxi egongo da eta. "Batez ere, Gipuzkoan egingo ditugu aurkezpenak; Bizkaikoak Arratian eta Mungia aldean izango dira", argitu du Zabalak.

LAN ESKAINTZA
DURANGOKO IBAIZABAL IKASTOLAK
ZUZENDARI NAGUSIA BEHAR DU

Eskaintzen da
Lanaldi osoa.
Kontratu mugagabea.
Kooperatiba izaera duen lan-inguru partehartzailea.
Eragin sozial handiko proiektu baten lidergoia eramatea.

ib:
ibaizabal
IKASTOLA

Bidaliz zure CV-a
artezkaritza@
ibaizabalikastola.eus
-era abenduak 8a
baino lehen.

Info guztia
ibaizabalikastola.eus-en

ERLIA
CONTENEDORES
contenedoreserlia.com

Hondakinak kudeatzeko instalazioa.
Obra eta industriako hondakinen
kudeaketa eta garraioa.
Hondakin inerteen kudeaketa.

Astola auzoa, 68 • 48220 ABADIÑO
Tel.: 646 247 350 / 946 814 107

ATXONDO
ABENDUAK 7

XXVIII. ARTISAU ETA
NEKAZAL AZOKA
Produktuen erakusketa eta salmenta

atxondo

kutxabank

"Zerbaitegatik gogoan hartzea merezi duten istorioak jaso ditut"

UXUE ALBERDI ESTIBARITZ IDAZLEA ETA BERTSOLARIA

Alberdik Euskal Herriko 57 emakumek ahoz kontatutako 77 istorio edo bizipen batu ditu 'Esne-berriketan' liburuan. Abenduaren 1ean Hitz liburu dendan aurkeztuko du argitalpena, Miren Amuriza lagun. Saioa 19:00etan izango da



Begoña Durruty ilustratzailea eta Uxue Alberdi idazlea. ELKAR

BERRIZKO
ZIKLO KROS
SARI NAGUSIA

Master 10:00
40/50/60

Kadete 11:00
Neskek eta mutilak

Junior 12:00
Neskek eta mutilak

Open
Neskek

Master 30 13:00

Open
Mutilak

Sari banaketa 14:00

AZAROAK 30
Berrizburun

Berriz
6
999
ALKIMAX
Taes
dinamika
anboto
Dela
k
ROGER BRIZ

Ekaitz Herrera LITERATURA

Euskal Herriko kontakizun isil edo isilduen atlas txiki baten modura aurkeztu dezakegu 'Esne-berriketan'?

Gure genealogiari buruzko lana da, xehetasunetatik abiatuta osaturikoa. Izan ere, gure literatura ez da zaharra eta ez daukagu gure aurreko andreek idatzitako literaturarik, beren min, poz, frustrazio, dezepzio horiei buruzkorik, lehen pertsonako literaturarik. Eta ez dakit hutsune horretaz ohartzen garen. Uste dut horrek guztiak eragin handia duela gure auto-pertzepzioan, bai indibidualki, eta baita kolektiboki ere. Horrenbestez, lanak badu genealogia hori osatzeko bokazioa, eta baita gozatzeko ere. Izan ere, niretzat gozamina izan da ahots horiek biltzea.

Zelan aukeratu duzu emakume edo istorio bakoitza? Zelan heldu zara haien istorioetara?

Bertsolaritzari esker eta irakurle taldeetara egiten ditudan bisitei esker, harremanak egin ditut hainbat emakumerekin, eta horrek amua botatzeko aukera eskaini dit. Bi urteko lana izan da. Aurrez aurre egon naiz pertsona horiekin guztiekin,

banaka batzuetan, talde txikitan beste batzuetan. Prozesu gozagarria izan da. Entzundakoak eta grabaturikoak modurik esanguratsuenetan joan naiz idazten, tokian tokiko esamoldeak, bakoitzaren kontatzeko modua ahal bezainbeste errespetatuta. Beti esaten nien: "Ez dakit gaur hemen hitz egingo ditugunak liburuan aterako diren ala ez". Baina azaltzen nien ariketak berak bazuela balio bat, elkartzekoa, elkarri entzutekoa. Gero, istorioen aukeraketa egin dut. "Zer dira, istorio onak?", esaten zidaten. Ez da batere erraza hori definitzea. Zerbaitegatik gogoan hartzea merezi duten istorioak batzen ahalegindu naiz: bitxiak direlako, oso gogorak direlako edo hunkigarriak zein dibertigarriak direlako.

Zer kontatzen da istorioetan?

Esango nuke bizia dariola liburuari. Badira istorio batzuk lanari lotuak, baserri munduari, itsas giroari lotuak, eta badira etxe barruko istorioak, bikote harremanei buruzkoak, lagun artekoak, erditzeekin, heriotzarekin, sexualitatearekin loturikoak. Mendekotasuna, biolentzia, xalotasuna ageri dira. Atal bakoitza ez da gai zehatz bati buruzkoa, baina badago halako atze-oihal bat, istorioak biltzen dituen.

Ahozkotatzen eta emakumeen memoria bizia dokumentatzeko ariketa zure hainbat lanetan dago presente.

Asko disfrutatzen dut ahozkotatzen idazten. Edozein literaturak baztertu ezin duen parte bat dela iruditzen zait. Izan ere, literaturaren definizio posibleetako bat ahotsa idaztea dela iruditzen zait. Kontzientziaren ahotsa, edo norbere buru barruko ahotsa, baina baita inguratzen gaituen horren munduaren hizketa ere. Gure hitz egiteko moduak, zertaz hitz egiten dugun, nola hitz egiten dugun, zer isiltzen dugun,

zertaz ez dugun hitz egiten... horrek asko esaten du gutako bakoitzaz. Eta uste dut edozein literatura motak jaso egin behar duela hori.

'Esne-berriketan'. Zergaitik izen hori?

Esaera hori Elgoibarko neska bati entzun nion duela 30 bat urte, oso gaztea nintzela. Ipuin lehiaketa bat antolatzen zen, eta neska hark beti irabazten zuen. Nik beti irakurtzen nituen bere lanak, ikasi egin nahi nuelako. Gogoratzen naiz, behin, *Esne berriketan* izeneko ipuin batekin irabazi zuela. Elkarriketatu egin zuten eta galdetu zioten zer zela eta ipini zuen izenburu hori. Azaldu zuen fundamentu handirik gabeko berriketa izendatzeko erabiltzen zela "esne berriketan" bere inguruan, eta askotan emakumeen arteko hizketa gutxiesteko balio zuela. Egokia iruditu zitzaidan libururako.

Ezin ahaztu Begoña Durruty ilustratzailearen lana. Berak ipini dizkie irudiak esne-berbei.

Begoñak eta biok aspalditik elkar ezagutzen dugu, eta honako hau elkarrekin egiten dugun bigarren lana da. Harreman estua daukagu. Istorioetako bi-hiru Begoñak berak bildutakoak dira, Baztan aldean bera elkartu da-eta andre batzuekin. Gero, Begoñaren lana lehen aipatu ditudan atze-oihal horiek jostea izan da. Batzuetan, harien bitartez, edo marren bitartez, edo trenbide baten bitartez, edo zirriborro batzuen bitartez. Batzuetan deserosotasun karga bat erantsiz, beste batzuetan ikuspuntu bat gehituz, kolore bat emanez. Begoñaren ilustrazioak kontakizunak bezalakoak dira: gordinak, freskotasun hori gordetzen dutenak, askorik elaboratu gabeak, labetik atera berriak bezalakoak. Eta niri asko gustatzen zait bere izaera hori, alde guztietatik, bai pertsonalki eta bai marrazten duenean.

Abenduaren 1ean Hitz liburu dendan egongo zara, Miren Amurizagaz batera.

Idazle eta bertsolari izateaz gainera, Miren Amuriza eta biok lagun min-minak gara. Miren da liburuko kontagarietako bat, eta oso ondo ezagutzen du liburua egiteko prozesua. Orduan, bion arteko elkarriketa baten bitartez aurkeztuko dugu liburu, eta kontakizun batzuk ere irakurriko ditugu. Tarte atsegin bat pasatzeko modua izango da.

Maialen Zuazubiskar MUSIKA

Eskualdeko seikote honek bide luzea egin du musika munduan. Orain, lan berri batez datoz. Haize-Arrosak Ahotsenean aurkeztuko du *Magala* lana, abenduaren 8an.

'Magala' diskoa kaleratu duzue oraintsu, zuen bigarren diskoa. Zelan definituko zenukete?

Eneritz Gorritxategi: *Magala* emakumeagaz, tradizioagaz eta transmisioagaz lotuta dago. Lehenengo diskoagaz alderatzen badugu, oso desberdina da. Lehenengo apur bat elektronikoa zen, pop ikutu batez. Baina plazetan ibili garenean, konturatu gara gu folkean gaudela erosoan. Beraz, folkera salto egin dugu. Musikalki, diskoa folkaren oinarrian dago, baina estilo anitzekin aberasten da, "folk-fusioa" deitu daitekena: euskal folketik hasi eta runba, country eta *balkan* ikutuak barne.

Edurtzeta Ania: Letrari garrantzi handia ematen diogu, eta abestiak transmititzen duen mezuari. Abestiak esperientzia propioetatik, emozioetatik, borroketatik eta kezketatik jaio dira. Gainera, musikari aldake-

"Plazetan konturatu gara folkean gaudela erosoan"

ENERITZ GORRITXATEGI ETA EDURTZETA ANIA HAIZE-ARROSA

Haize-Arrosak bere bigarren lana kaleratu du, 'Magala'. Diskoa emakumeagaz, tradizioagaz eta transmisioagaz lotuta dago. Bertan, hainbat kolaboratzailek parte hartu dute



Haize-Arrosa taldeko kideak.

ta ere izan dugu, eta horrek estiloa aldatzea ere eramaten zaitu. Adibidez, gitarra elektrikotik akustikora pasatzerakoan, gozotasun puntu hori igarri dugu, berotasun puntu hori. Eta bioli-

nagaz borobildu egin dugu hori. **E.G.:** Horrez gainera, *Magala* diskoan kolaborazio dezente ere badago. Esaterako, *Amama Winchester* abestian Unai Iturriagak eta Igor Elortzak kolaboratu

dute. Moonshine Wagon taldeagaz elkarlanean egindako *Politte* abestian, Durangaldeko dantza taldeak ageri dira. Oso eskertuta gaude. **Ezin da esan zuek geldirik egotekoak zaretenik. Taldea sortu zenuten, dis-**

koa kaleratu zenuten, eta, aldiro-al-di-ro, bideoklipak ere ateratzen dituzue. Zer dela eta joera hori?

E.G.: Merkatua horrelakoa delako. Ez pentsa guk horregaz askorik disfrutatzen dugunik. Nahiko handi geratzen zaigu. Orain 20 urte jo eta ke ibili ginen, baina berriro heldu eta beste era bateko merkatua topatu dugu. Orain sare sozialak daude, dena bisuala izan behar da eta dena eskaini behar duzu momentuan.

E.A.: Dena oso arina da gaur egun, horixe da topatu dugun aldaketarik handiena. Gauza bat amaitzen duzunerako, hurrengo izan behar duzu buruan. Hala sartu gara bideoklipen munduan, eta, egia esan, oso ondo pasatzen dugu. Baina lan handia da.

Eta zelan datoz zuzenekoak?

E. G.: Abenduaren 5ean hasiko gara zuzenekoekin, Gasteizen, Jimmy Jazz-en; Aintzina Folk jaialdian Faltriqueira taldeagaz egongo gara. Abenduaren 8an Ahotsenean izango gara, eta, hortik aurrera, hainbat kontzertu izango dugu; aurkezpen kontzertu bira bat egingo dugu.



disfruta
BIZKAIA



Non jan,zer egin eta non lo egin Bizkaian



@disfrutabizkaia

www.disfrutabizkaia.com



Bizkaiko Ostalaritza
Elkartearen webgune
turistikoa.



"Umeari ume izaten utzi behar zaio"

PADDY REKALDE IDAZLEA

Haur literaturako 'Urtebetetze zalapartatsua' kaleratu du. Protagonistaren urtebetetze festatik abiatuta, ideia bi gurutzatzen ditu: helduen itxaropenak eta umearen ume izateko nahia

J.D. LITERATURA

Zertan datza istorioa?

Idazten ditudan liburu guztietan beti dago istorio bat, askotan abenturatxo bat edo, eta gura barik edo gurata, hausnarketarako aukera ematen dute. Liburu honetan, Anartz gure protagonistaren urtebetetze jaia egiten denean hasten da dena, bere etxean. Aititak larruzko pilotatxo bat oparituko dio, esku pilotan aritzeko, eta nagusitan pilotari profesionala izan litekeela esango dio. Gero, etxeko denek esango diote zer izan beharko lukeen nagusitan, aitak, amak, anaiak, arreba... Liburu amaieran ikusten da Anartz



Paddy Rekalde 'Bala' eta 'Urtebetetze zalapartatsua' liburuekin.

mutikotxoa dela oraindino, eta, beste alde batetik, berak erabakiko duela etorkizunean zer izan gura duen.

Beraz, umeari ume izaten utzi behar zaiola da liburuko irakaspen nagusia.

Bai. Umeari ume izaten utzi behar zaio, bere munduan bizi-tzen, bere imajinazioan, bere sormenean eta bere plazer horretan. Gero, bakoitzak ikusi beharko du, bere apaltasunean, zer izan gura duen edo zer izateko gaitasuna duen.

Irudiak Jokin Mitxelenarenak dira. Ez da beragaz lan egiten duzun lehenengo aldia, ezta bigarrena ere. Jokin Mitxelena beti izan da nire gustukoena. Bere zale amorratua naiz. Oso gogoko ditut bere estiloa, eta bere pertsonaiak. Umeak biziak dira, bihurriak... Erabiltzen dituen koloreak ere nabarmenduko nituzke. Marrazkiak oso erakargarriak dira koloreen aldetik.

Haur literaturako zure hainbat liburu egongo da Durangoko Azokan; esaterako, 2021eko 'Errota zaharreko kluba'.

Lagun kuadrilla batek, bere protagonista eta guzti, abentu-

ratxo batzuk bizi ditu *Errota zaharreko kluba* liburuan zehar. Abentura horiek liburuaren osotasuna egiten dute, zelanbait esateko, eta Nafarroako erdialdean kokatuta daude. Zonalde hori umeen mundura ekarri gura nuen: bere galsoroak, mendi motak, usainak, animaliak... Lehen esan dudan moduan, abenturatxo bakoitzetik hausnarketa bat egin liteke.

'Bala' izeneko ia zkoa da, 2024koa. Bala gure etxeko txakurra izan zen. Hil zen. Orduan, berari buruzko ipuin bat idaztea pentsatu nuen, gure artean jarrai zezan... Bala zelakoa zen eta bere abenturak zelakoak ziren kontatzen du ipuinak.

Hamar urte daramatzazu haur literatura lantzen. Gustuko duzun generoa da?

Bai, beti gustatu izan zait. Batzuetan, jendeak bigarren mailako generotzat hartzen du haur eta gazte literatura, baina ez da horrela. Haur literaturan istorio eta liburu zoragarriak daude. Aurrera begira, hainbat ideia eta kontu dut buruan, eta apurka-apurka joango naiz horiek osatzen.

www.tabiracolor.com

TABIRA COLOR

Urbite Ind., 2, Abadiño
Frente a Eroski

94 621 79 11

procolor Pinturak

PINTURA DENDA

Astelehenerdik ostiralera
De 8.00 a 13.15
De 15.00 a 19.00

Zapatuetan
De 9.00 a 13.00

DIBA

K O O P E R A T I B A

Durangaldeko
Baserritarren
Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

FAMILIA GARA

KONPROMISOA GARA

HEZKUNTZA GARA

DURANGO GARA

Elkarbanatuz, elkarlanean.

Gure ingururekiko eta munduarekiko.

Aktiboak, berritzaileak, inklusiboak eta humanistak.

Eraginez, sortzaileak izanez.

BESTEENTZAT ETA BESTEekin, GURE MISIOA PERTSONEN ZERBITZURA

Jesusitak Durango

HERRI ETA
AUZOETAKO JAIAK



Abuztua

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31
3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31		

MAÑARÍA
940 800 900
www.mañaria.es

2026

Durangaldeko egutegia

OHIKO SALTOKIETAN SALGAI

ABADIÑO Petite
eta Abadiñoako estankoa

ATXONDO Itziar taberna

BERRIZ Egun on okindegia

DURANGO Etxebarria prentsa
denda eta Hitz liburudenda

ELORRIO Txokolat

GARAI Herriko taberna

IURRETA Iurreta kopistegia

IZURTZA Herriko taberna

MAÑARIA Herriko taberna Taska

MALLABIA Herriko taberna

OTXANDIO Aspe estankoa

ZALDIBAR Imendia prentsa denda

ZORNOTZA Ayerdi prentsa denda

ILARGI
FASEAK

ORTURAKO
INFORMAZIOA

DA!

Durangaldeko
standean salgai

DURANGALDEKO
BASERRIAK

TENPORAK

KABI@ - LANDAKOGUNEA**ABENDUAK 5**

10:30 - 11:30 Bideo-mapeaketa lantegia. Martin Etxauri Sainz de Murieta, Txo!?. *Tailerra*

11:45 - 12:45 Bideo-mapeaketa lantegia. Martin Etxauri Sainz de Murieta, Txo!?. *Tailerra*

17:00 - 18:00 Hirukokoroa. Eider Eibar eta Iskander Sagarminaga *Aurkezpene*

18:30 - 20:00 Egin Ttap!. Kukulaisi *Topaketa*

ABENDUAK 6

10:30 - 11:00 DBHn digitalizazio librea lantzeko Wikikasi ikas-egoera. Mattin Solis (Talaio) eta Leire Lison (Badalab) *Aurkezpene*

11:15 - 11:45 EIMA katalogoa. Roberto Kerexeta Zulaika eta Ainara Buenetxea Iturrioz *Aurkezpene*

12:00 - 12:30 Ikusgela - Zientzia bideoak egiteko bi eredu. Aiora Mujika. Euskal Wikilarien Elkartea *Aurkezpene*

12:45 - 13:15 Hamarratz. Iurdana Acasuso. Azkue Fundazioa *Aurkezpene*

13:30 - 14:00 Kutxaz kanpo: esperientzien kutxa. Xabier Landabidea Urresti *Aurkezpene*

17:00 - 17:25 Eli-k-on. Aitor López Olivares *Aurkezpene*

17:30 - 17:55 Bazterka: urik gabeko herria. BUG Aizokora *Aurkezpene*

18:00 - 18:25 Nire argigunea. Eneko Amezaga *Aurkezpene*

18:30 - 18:55 Tagzania: berpizkundea eta gehiago. Luistxo Fernandez. CodeSyntax *Aurkezpene*

19:00 - 19:25 Don't anger the boss. Curly Studios *Aurkezpene*

19:30 - 20:00 The last cage. Walrush Studios *Aurkezpene*

ABENDUAK 7

11:00 - 11:30 Adimen artifiziala Babelgo dorrean. Ander Barrena. HITZ zentroa *Solasaldia*

11:45 - 12:15 Palestina eta Ekialde Hurbila sutan (2023-2024). Iñaki Lopez de Luzuriaga eta Iñaki Alegria *Aurkezpene*

12:30 - 13:00 Ni.eus. Zure pribatutasuna, gure hizkuntzan: euskarazko posta eta hodei segurua. Lorea Arakistain, Puntu.eus *Aurkezpene*

13:15 - 13:45 Euskal Herriko historia 100 objektutan: podcast eta komiki bidez kontatua. Euskal Wikilarien Kultur Elkartea *Aurkezpene*

17:00 - 17:30 Hitzaurrea. Piszifaktoria Ideien Laborategia eta Fikzioa Fabrika *Aurkezpene*

17:45 - 18:15 Hizki-abi. Alejandra Bueno *Aurkezpene*

18:30 - 19:00 Sugarklaang. Vanessa Lorenzo Toquero *Aurkezpene*

19:15 - 19:45 Trikitixaren hurrengo kapitulua: hauspodun triklata. Xabier Malbadi *Aurkezpene*

ABENDUAK 8

10:30 - 14:00 Gamer gela. Game Erauntsia eta Rolariak *Topaketa*

16:30 - 19:30 Gamer gela. Game Erauntsia eta Rolariak *Topaketa*

SZENATOKIA - SAN AGUSTIN KULTUR GUNEA**ABENDUAK 5**

10:30 - 11:30 Antzerki sorkuntza partekatzen. Inprobisazioaz!. Karrika antzerki taldea *Tailerra*

12:00 - 13:00 Antzerki sorkuntza partekatzen. Inprobisazioaz!. Karrika antzerki taldea *Tailerra*

19:00 - 20:00 60. Durangoko Azokaren inaugurazio ekitaldia. Gerediaga elkarte *Inaugurazioa*

ABENDUAK 6

11:00 - 11:30 Destiny driver. Lamapatxa antzerki tadea *Antzerkia*

12:00 - 12:15 Nondik abiatu inora. Nabiga kolektiboa *Dantza*

16:00 - 16:30 Destiny driver. Lamapatxa antzerki tadea *Antzerkia*

16:30 - 16:45 Nondik abiatu inora. Nabiga kolektiboa *Dantza*

17:30 - 18:00 bostOK!. bostOK! antzerkia *Antzerkia*

20:00 - 20:30 bostOK!. bostOK! antzerkia *Antzerkia*

ABENDUAK 7

11:30 - 11:45 Buruzagien batzarra. Karrika antzerki taldea *Antzerkia*

12:30 - 13:00 Karin karan. 7 katu maskaratu *Antzerkia*

13:00 - 13:15 Buruzagien batzarra. Karrika antzerki taldea *Antzerkia*

16:00 - 16:35 Alperrak, tunanteak eta maleanteak. Gilkitxaro *Antzerkia*

17:00 - 17:30 Karin karan. 7 katu maskaratu *Antzerkia*

18:00 - 18:35 Alperrak, tunanteak eta maleanteak. Gilkitxaro *Antzerkia*

ABENDUAK 8

11:30 - 11:45 Gaua. Ibawa kolektiboa *Dantza*

12:00 - 12:30 Furgonologoa. Julen Axpe *Bakarriketa*

12:30 - 13:00 Hil da jainkosa. Bibitxa kolektiboa *Antzerkia*

16:00 - 16:15 Gaua. Ibawa kolektiboa *Dantza*

16:30 - 17:00 Furgonologoa. Julen Axpe *Bakarriketa*

17:00 - 17:30 Hil da jainkosa. Bibitxa kolektiboa *Antzerkia*

leikeEraberritzeak
Interiorismoa
Aroztegia

www.leike.eus · Antso Estegiz, 3 Durango · Tlf.: 94 681 72 29 · leike.ad@gmail.com



ABENDUAK 5

AHOTSENEA
LITERATURA

11:00 - 12:00 Idatzi, kantatu, antzeztu: sormena, gaitasuna eta atxikimendu afektiboa erdiesteko. Ahotsenea Tailerra

16:00 - 16:30 Mugarik Gabe - Poemak. Joseba Sarrionandia eta Ilham Sami Çomak, Suargi elkarte Liburu aurkezpena

16:30 - 17:00 Rara, Irati Bediaga. Elkar Liburu aurkezpena

17:00 - 17:30 Sua. Gauekoren aroa. Gabriela Rodriguez Brisson (lehenengo irudig.) David Castelo Barrios (idazlea) eta Unai Gonzalez Martinez (bigarren irudig.), Dracco Liburu aurkezpena

17:30 - 18:00 Utzi kontatzen. Laurie Halse Anderson (Ainhoa Mendiluze, itzultzailea), Txalaparta Liburu aurkezpena

18:00 - 18:30 Etengabeko (ber)eraikuntzan. Julene Gatzagaetxebarria Ameyugo, Egilea editore Liburu aurkezpena

18:30 - 19:00 Lisipe bilduma. Susa Liburu aurkezpena

19:00 - 19:30 Erleen azken ziztada. Kepa Iribar. Erein Liburu aurkezpena

19:30 - 20:00 Korrespondentzia. Eric Dicharry. Maiatz Liburu aurkezpena

AHOTSENEA
MUSIKA
PLATERUENA

11:00 - 12:00 Aztia. Don Inorrez, Oier Guillan Tailerra

15:40 - 16:10 Gaua. Arima Soul

16:50 - 17:20 Bidea badoa. Mugarri

18:00 - 18:30 Ahaldatu. Mihise

19:10 - 19:40 Kontzertu bat galerari. Mugan

20:20 - 20:50 Argitzala. Heitxi

21:30 - 22:00 Eskafandra. Eskafandra

23:30 Lukiek eta Ezezez Kontzertua

ABENDUAK 6

AHOTSENEA
LITERATURA

10:30 - 11:30 Beste zerbait, Danele Sarriugarte/ Katona, Antxiñe Mendizabal / Narrugorrik, Ixiar Rozas. Consonni Liburu aurkezpena



DURANGOKO AZOKA

11:30 - 12:00 Izen baten promesa. Hedoi Etxarte. Susa Liburu aurkezpena

12:00 - 12:30 Kuntzak eta kerak. Sara Uribe-Etxeberria Atxurra. Balea Zuria Liburu aurkezpena

12:30 - 13:00 Esne-berriketan. Uxue Alberdi eta Begoña Durruty. Elkar Liburu aurkezpena

13:00 - 13:30 Barne zerbitzuak. Katixa Agirre. Elkar Liburu aurkezpena

13:30 - 14:00 Gu da gure guda eta Amiltzearen lorratza. Balu, Balu Liburu aurkezpena

14:00 - 14:30 Jaiotzetik erreboltari. Matxalen Bezos Arketa, Dakit Liburu aurkezpena

16:00 - 16:30 Haize begitik. Mikel Ibarguren. Susa Liburu aurkezpena

16:30 - 17:00 Enarak. Bernardo Atxaga. Pamiela Liburu aurkezpena

17:00 - 17:30 Moebiusen ertzak. Garazi Kamio. Elkar Liburu aurkezpena

17:30 - 18:00 Ganbila bilduma. Urteko lau liburuak. Susa Liburu aurkezpena

18:00 - 18:30 Erroen izerdia. Jone Bordato. Elkar Liburu aurkezpena

18:30 - 19:00 Espekulazioak. Arrate Egaña. Erein Liburu aurkezpena

19:00 - 19:30 Azpijokoa Azpijazun. Iñaki Dorronsoro Maioz. Erein Liburu aurkezpena

19:30 - 20:00 Luma kantaria, Idoia Beratarbide, / Bilduma ikusezina, Stefan Zweig (Itzultzailea: Naroa Zubillaga). 1545 Liburu aurkezpena

21:30 - 22:30 Zeri idatziko diogu orduan? Behe Banda Errezitala

AHOTSENEA
MUSIKA
PLATERUENA

11:00 - 11:30 Kendutako azken kartela. Kak!

12:10 - 12:40 Hemen naiz. Bisai

13:20 - 13:50 DAM. Jonkass

14:30 - 15:00 Etxea. Nhil

A. Urreta
pedagogia

Oinetako patologiak
Oinaren azterketa biomekanikoa
Neurrira egindako plantilak

Herriko gudarien
kalea, 10 behea
DURANGO
Tel.: 946 215 404

UNAI
GARAY

ITURGINTZA · BEROGINTZA · GASA

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790 · unaigaray@yahoo.es

15:40 - 16:10 Zure estoldetan. Ixabe

16:50 - 17:20 Harramazka. Zinez

18:00 - 18:30 Aurrera begira. Aria

19:10 - 19:40 Goizegi hiltzeko. Ødei

20:20 - 20:50 Atzera begira. Herenegun

21:30 - 22:00 Ipuinak. Burutik

23:30 Mirua eta Naxker Kontzertua

ABENDUAK 7

AHOTSENEA MUSIKA PLATERUENA

11:00 - 11:30 Zahartzaroaren maparen bila. Arantxa Urretabizkaia. Pamiela Liburu aurkezpena

11:30 - 12:00 Silueta. Harkaitz Cano. Sus Liburu aurkezpena

12:00 - 12:30 Dena zulo bera zen. Eider Rodriguez. Susa Liburu aurkezpena

12:30 - 13:00 Euri eta ateri. Alaine Agirre. Elkar Liburu aurkezpena

13:00 - 13:30 Lakioa. Josu Goikoetxea. Elkar Liburu aurkezpena

13:30 - 14:00 Palinpsestoa. Joxe Austin Arrieta. Maiatz Liburu aurkezpena

16:00 - 16:30 Diesel. Bertol Arrieta. Alberdania Liburu aurkezpena

16:30 - 17:00 Errusiako gutunak. Vera Zasulitx. Katakarak Liburu aurkezpena

17:00 - 17:30 Aizkorak eta gutunak. Edorta Jimenez. Elkar Liburu aurkezpena

17:30 - 18:00 Akabo. Laura Mintegi. Txalaparta Liburu aurkezpena

18:00 - 18:30 Auzokinak. Gorka Erostarbe. Elkar Liburu aurkezpena

18:30 - 19:00 Harrizko bihotza. Karmele Jaio. Elkar Liburu aurkezpena

19:00 - 19:30 Biba gorriac. Imanol Murua. Pamiela Liburu aurkezpena



DURANGOKO AZOKA

19:30 - 20:00 Txerriak eta loreak. Jon Arretxe. Erein Liburu aurkezpena

22:00 - 23:00 Heriotzak Eduardo du izena. Formol Laborategia Ikuskizuna

AHOTSENEA MUSIKA PLATERUENA

11:00 - 11:30 Alkimia. Harribitxi

12:10 - 12:40 Suzko ikurra. Isuo

13:20 - 13:50 Dolu(s)min. Ilargi

14:30 - 15:00 attä. Sara Zozaya

15:40 - 16:10 Oraina eskuetan. Gar

16:50 - 17:20 Dirudienez. Karma

18:00 - 18:30 Mirari orok tapatzen zauria. Silitia

19:10 - 19:40 Hemen. Harria

20:20 - 20:50 Ginka Biloba. Ginka Biloba

21:30 - 22:00 Bizi eta ixo! Gailu

ABENDUAK 8

AHOTSENEA LITERATURA

10:00 - 11:00 Sormen Beka DA. Sari ematea. Gerediaga Elkarte. Durangoko Udala. Aurkezpena

11:00 - 11:30 Aurpegiak. Amaia Telleria. Alberdania Liburu aurkezpena

11:30 - 12:00 Euri Beroak. Iban Garro. Erein Liburu aurkezpena

12:00 - 12:30 Düsseldorf-eko txibatoa. Karlos Linazasoro. Erein Liburu aurkezpena

12:30 - 13:00 Odola kantari. Unai Elorriaga. Pamiela Liburu aurkezpena

13:00 - 13:30 Munduko Poesia Kaierak. N.Hikmet-R.Pozzi. Susa Liburu aurkezpena

13:30 - 14:00 Guillem. Nuria Cadenes, Amaia Apalauza (itz.). Txalaparta Liburu aurkezpena

14:00 - 14:30 Sakelako bihotzak. Julen Apella. Elkar Solasaldia

16:00 - 16:30 Kateriñe. Maitena Illarramendi / Iñigo Sarasola. Erein Solasaldia

16:30 - 17:00 Urte urdin ihesak. Txiliku. Elkar Liburu aurkezpena

17:00 - 17:30 Lohizulo. Aitor Oñate. Elkar Liburu aurkezpena

AHOTSENEA MUSIKA PLATERUENA

11:00 - 11:30 Bidean. Hartzak Zeruan

12:10 - 12:40 Magala. Haize-Arrosa

13:20 - 13:50 Muturrez zerura. Bele

14:30 - 15:00 Berreraikitze aroa. Ekiza

15:40 - 16:10 Ezeren alde. Garraio

16:50 - 17:20 Hormetan idazten. Esanezin

18:00 - 18:30 Denboraren lehia. Kiimak

19:10 - 19:40 Itzulera(k). Ane Han

ALLUITZ MOTOR

Alluitz kalea, DURANGO
94 620 20 04
www.alluitzmotor.com

**anboto
kide**

Anbotokideen
txokoa

ABENDUKO ZOKKETAK

*Zokketa hauetan
parte hartzeko eman
izena gure webgunean.



Xiberu taberna
bi gosari bikoitz.
Zornotza.



Alcamporen
eskutik Auchan
produktuez
osaturiko otzara.



Herri Urratseko
abestien
binilo bikotza.

AZAROKO IRABAZLEAK

Aukan izozkiak
Meritxel Etxagibel Mariskurrena
Basa take away
Xabier Gorritxategi Retolaza
Xiberu taberna
Ziortza Onaindia Bereziartua
Gorka Larrinaga Agirre

Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaitetz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



"Erraz irakurtzeko eta atsegina izateko asmoz idatzitako istorioa da"

JON ANDER URKIAGA EGIDAZU IRAKASLEA ETA IDAZLEA

'Kobazuloo' kaleratu du, gazteei zuzendutako abenturazko eleberria, Alai argitaletxeagaz. Kontakizunak adiskidetasuna, lehenengo maitasunak eta naturaren defentsa batzen ditu



Jon Ander Urkiaga, liburua eskuan duela.

Aitziber Basauri ZORNOTZA

Umeei zuzendutako 'Baziren behin... hiru ipuin' liburua kaleratu eta gero, Jon Ander Urkiaga Egidazu idazleak (Zornotza, 1987) gazteentzako literaturari heldu dio berriro. Udan argitaratutako 'Kobazuloo' liburua Durangoko Azokan egongo da. **Zelan definituko zenuke 'Kobazuloo' liburua? Non dago girotuta?**

Gazteentzako beti-betiko abenturazko narrazio bat da. Haria erraz jarraitzeko moduko kontakizuna da, erraz irakurtzeko eta atsegina izateko asmoz sortutakoa. Itsasaldeko kanpin batean elkar ezagutu duten hiru neska-mutikok antzinaroko gizaki bat ezagutuko dute basoan, eta elkarrengaz bizi dituzten abenturak eta euren artean sortutako arazoak kontatzen ditut. **Historiaurreari keinu egiten diozu.** Historiagaz lotutako zenbait elementu batzen du, bai. Beti izan naiz historia zalea. Historiaurreko gizaki hura islatzen ahalegindu naiz. Ehizarako erabiltzen

zituzten tresnak deskribatzen ditut, haren janzkera... Ez da liburu historiko bat, inondik inora, baina historia irakasleren baten zat interesgarria izan liteke.

'Mendekua ordainetan' liburuagaz alderatuta, erregistroa aldatu duzu. Kontaketa eta hizkuntzaren erabilera nahiko antzekoak dira. Kontakizuna ulergarria izatea izan dut helburu, konplikazio handirik bakoa. Gaiari dagokionez, *Mendekua ordainetan* errealistagoa da. Edozein institututan gertatu daitezkeen gorabeherak kontatzen ditut han. *Kobazuloo*, oster, asmatutako istorio eta pertsonaiez osatutako abenturazko kontakizuna da, fikzioa. **Zelan ikusten duzu gazteen eta literaturaren arteko hartu-emana?**

"ISTORIOA GERTUKOA SENTITUZ GERO, GAZTEEK ASKOZ ERRAZAGO IRAKURTZEN DUTE"

Umeak oso irakurzaileak dira. Baina, Lehen Hezkuntza amaituta, DBHn hastekoak diren gazteek literaturagaz duten hartu-emanean haustura bat gertatzen da. Batzuk berriro gerturatzen dira geroago. Hala ere, ez da erraza liburu batez gaur egungo teknologien kontra borrokatzea. Askok eragiten du ere etxean zer ikusten duten. Bestalde, istorioa gertukoa sentituz gero askoz errazago irakurtzen dutela uste dut. Gehiago murgilduko dira istorioan, eta gusturago hartuko dute liburua.

Eroso zaude gazte literaturan?

Une honetan horixe egokitu zaidala esango nuke. Gazteekin nire egunerokoan nago hartu-emanetan, horixe da nire testuingurua. Seguru asko hori sortu dira liburrako ideiak. Egokitu den moduan hartu dut. **Baduzu beste proiekturik?**

Umeentzako liburu bat kaleratu gura dut datorren urtean, Elkar argitaletxeagaz.

"Aurtengo azoka martxa eta ilusio handiagaz dator"

AMAIA EGIDAZU ILUSTRATZAILEA ETA IPUIN KONTALARIA

Amaia Egidazuk (Durango, 1981) 'Txirriki Txarraka' album ilustratua kaleratuko du 60. Durangoko Azokan, eta Euskal Herriko historiaren inguruko 'Data-zarta' jolasa Argiagaz batera

Maialen Zuazubiskar DURANGO

Sormena beti dago presente Amaia Egidazuren bizitzan, izan bere lanetarako, izan ipuin kontakete-tarako... Aurtengo azokan ere lan bi kaleratuko ditu. Hori nahikoa ez, eta beste pare bat aurkezpen gidatuko ditu.

Egun batzuk baino ez dira falta aurtengo azokarako. Zelan dator Amaia Egidazuren azoka?

Beste urte batzuetan legez, mar-txa askogaz datorrela esango nuke, eta ilusioagaz, jakina. Lan berri bat dut, album ilustratu berri bat, oraintxe argitaratuko dena. Gai-nera, azokan aurkezteko aukera izango dut. Beste alde batetik, Argiakoekin eta lantalde polit

bategaz, Josu Narbarte, Iñaki Sanz-Azkue eta Eñaut Aiartza-guenagaz, *Data-zarta* izeneko karta-joko bat argitaratuko dugu, Euskal Herriko historiaren ingurukoa. Eta, jakina, Saguganbaran ere ibiliko naiz, beste argitaletxe batzuetako liburu aurkezpenekin laguntzen. Beraz, horixe, alde batetik bestera. Ea ateratzen du-dan momenturen bat azoka ga-noraz ikusteko. Horixe dut hel-buru aurtun.

'Txirriki-txarraka' album ilustratua kaleratuko duzu. Zer da eta nori zuzenduta dago?

Album ilustratu bat da eta album ilustratuen ezaugarria izaten da irudiek testuek besteko garrantzia

dutela, edo handiagoa. Istorio txiki bat kontatzen du, testu erri-matu bidez, metagarria dena. Egitura errepikakor bat du. Beraz, oso istorio egokia izan daiteke hiru urtetik gorako umeentzat. Honela hasten da istorioa: *Gure herrian bada ume bat, haren ize-nik orain ez dut gogoratzen, bere-ziki trebea dena gauzak galtzen. Etxeko giltzak, txanoa, motxila, baloia... non eta nola galtzen dituen ez da sekula konturatzen*. Orduan, horixe, bada ume bat gauzak gal-tzen trebea dena, eta egun baten amak enkargu bat ekarriko dio. Hauxe esango dio: "Amama gai-xorik dago eta eraman gauza hauek amamari. Ez galdu ezer bidean".



Amaia Egidazu.

Umeak erantzungo dio: "Lasai, ez dut ezer garrantzitsurik galduko". Umea amamaren etxera bidean irtengo da, baina ez dakit, ba, nik gai izango ote den ezer garrantzi-tsurik ez galtzeko. Galduko ote du ezer? Ala ez? Istorioa irakurri behar hori jakiteko!

Horrez gainera, Argiagaz batera Data-zarta ere kaleratuko duzu.

Honelako jokoek harrera ona izaten dute. Aurretik, *Hizki Pizti*

aurkeztu genuen. Modu polit bat izan zen irakurketa-idazketa pro-zesua jolasaren bitartez egiteko. Eta dena euskaraz. *Data-zarta* oso egokia da 10 urtetik gorako umeentzat, eta baita helduentzat ere. Modu partekatuan egin dai-tekeen jokoa da. Ehun karta dau-de, eta, beraz, ehun gertaera his-toriko ageri dira bertan. Kartak mahai gainean kronologikoki ordenatzen joatea da helburua.





Itxasne Arabiourrutia, Saguganbarako arduraduna.



Saguganbarako iazko argazki bat.

"Saguganbara erronka handia da Berbarorentzat"

ITXASNE ARABIOURRUTIA LASPEÑAS SAGUGANBARAKO ARDURADUNA

Saguganbarak, Berbaroren eskutik, ume eta gazteak euskal kulturara gerturatzea du helburu. Aurten ere makina bat liburu aurkezpen, ipuin kontaketa eta zuzeneko emanaldi egongo da

Maialen Zuazubiskar SAGUGANBARA Itxasne Arabiourrutia iaz hasi zen Saguganbarako arduradun lanetan. Oso esperientzia positiboa izan zen Berbaroko kidea-
rentzat, eta irrikan dago aurtengo edizioa hasteko. Saguganbarak, Berbaroren eskutik, ume zein gazteei euskal kulturara gerturatze-
ko aukera eskaintzen die.

Hasteko, zelan doaz Saguganbarako azken prestaketak?

Azken hileetan lan handia izan dugu eta buru-belarri gabiltza azken prestaketekin. Programa-

zioa guztiz lotuta daukagu jada, eta azken txanpa honetan xehetasun txiki batzuk baino ez zaizkigu geratzen: lekua atontzea, materiala eta liburuak ipintzea, eta halakoak. Prestaketei dago-kienez, lanik handiena eginda dago oro har, eta, beraz, dena ondo doa.

Saguganbara Azokaren barruan oso finkatuta dagoen gunea da. Zer topatuko dute bertara doazenek?

Askotariko proposamenak aurkituko dituzte; besteak beste, liburu eta ipuin aurkezpenak, ipuin kontaketa, zuzeneko mu-

sika eta dantza ikuskizunak, karta jokoak, pailazoak, eta sormena lantzeko tailerrak. Gainera, bertaratzen direnek aukera paregabea izango dute sortzaileekin egoteko, idazleak, ilustratzaileak eta ipuin konta-

"SAGUGANBARARA BERTARATUTAKOEK AUKERA PAREGABEA DUTE SORTZAILEEKIN EGOTeko"

lariak bertan egongo dira-eta euren lanak aurkezten.

Horrez gainera, haur literaturako azken nobedadeak ere izango ditugu, eta baita iazko liburuak ere, denak gomendagarriak. Horiek guzti horiek Berbarok urtero argitaratzen duen irakur gidan jasota daude, eta irakur gida bera ere bertan eskuratu ahal izango da. Hori nahikoa ez, eta lagunekin edo familian irakurtzeko tarteak ere egongo dira.

Zelako erantzuna izaten dute Saguganbarako ekintzek?

Oso ona. Ume eta nagusiek asko eskertzen dute azokan eurentzat pentsatutako gune bat egotea, eta ekintza zein ikuskizunetan oso gustura parte hartzen dute. Egunaren eta programatutako jardueren arabera, jende gehiago edo gutxiago egoten da, baina saio askotan Saguganbarako gunea beterik egoten da. Oso gutxitan egoten da jende gutxi. **Zeintzuk dira aurtengo nobedadeak?** Saguganbaran aurkezteko baldintzetariko bat urte barruan argitaratutako produktua izatea

da, eta aurten 24 nobedade daude. Ekitaldi guztiak oso interesgarriak dira, baina batzuk nabarmenduko nituzke: Euskal Barrok Ensemble taldeak *Xirribit* ipuin musikatua aurkeztuko du, Maite Gurrutxagak *Tapakia*, eta Gora Musikak zein Korrontzik disko aurkezpen bana egingo dute.

Amaitzeko, Itxasne, Berbarorentzat erronka garrantzitsua izaten da Saguganbara antolatzea, ezta?

Saguganbara erronka handia da Berbarorentzat, bai, eta oso pozgarria era berean. Logistiko-lan handia eskatzen du, baina taldearen konpromisoari eskerrak ondo eramaten dugu. Berbarok 90eko hamarkadatik dabil Durangoko Azokan umeentzat ekintzak antolatzen, eta gure ibilbidearen parte garrantzitsua da hori.

Berbarok urte osoan lan egingo du euskararen eta euskal kulturaren alde, eta Saguganbara Azokan egoteak ikusgarritasun handia ematen dio gure eguneroko jardunari.






Urkiol gasolindegia ibilgailuetarako aukerarik onena.

- GLP, butanoa, kanpin-gasa.
- Kotxeak garbitzeko aukera.
- Barbakoak egiteko ikatza, izotza, platerak...

📍 BI-623, 48213 IZURTZA 📍 BI-623, 48210 OTXANDIO

LIBURU AURKEZPENA

Esne-berriketan

Uxue Alberdi eta Miren Amuriza

Abenduak 1, astelehena, 19:00etan



hitz liburudenda

artekalea 23, durgu
946 830 776
info@hitzliburudenda.com

SAGUGANBARA – ELKARTEGIA

ABENDUAK 5

10:00 - 11:30 Komiki tailerra. Eñaut Aiertzaguen *Tailerra*

12:00 - 13:30 Komiki tailerra. Eñaut Aiertzaguen *Tailerra*

16:45 - 17:15 Eraman nazazu zurekin. Junkal Lertxundi eta Xabi Salaberria. 1545 argitaletxea *Ipuin kontaketa*

17:30 - 18:00 Dortokaren ametsa. Amaia Egidazu eta Xabi Salaberria. 1545 argitaletxea *Ipuin kontaketa*

18:15 - 18:45 Su txikian. Olatz Mitxelena, Yolanda Arrieta eta Irati Eguren. 1545 argitaletxea *Ipuin kontaketa*

ABENDUAK 6

10:30 - 11:30 Abentura erraldoia: bildumaren azken ipuina eta karta-jokoa. Ipuin kontaketa marraztua. Gorka Bereziartua eta Adur. Argia *Ipuin kontaketa*

12:00 - 12:35 Orkestra zoragarria. Gotzone Butron eta Aitziber Raya. Pamiela *Liburu aurkezpena*

13:45 - 14:30 Xirribit ipuin musikatua. Irene Irureta eta Juan Kruz Igerabide. Euskal Barrok Ensemble *Aurkezpena*

15:30 - 16:00 Kaixo, xomorro. Antton Kazabon eta Jokin Mitxelena. Amesgile *Liburu aurkezpena*

16:15 - 16:45 Lanbideletrak. Antton Kazabon eta Jokin Mitxelena. Denonartean *Liburu aurkezpena*

17:00 - 17:30 Tapakia. Maite Gurrutxaga. Erein *Tailerra*

18:00 - 18:30 Mati eta Zugarramurdiko misterioa: saria ala ziria? Itxaso Martin eta Eider Eibar. Alai *Liburu aurkezpena*

ABENDUAK 7

10:30 - 11:00 Arrakastaren bila. Lur Gallastegi. Alai *Liburu aurkezpena*

11:15 - 11:45 Txirriki-txarraka. Amaia Egidazu. Pamiela *Liburu aurkezpena*

12:00 - 12:45 Lagunekin Topa! Disko aurkezpena. Potx, Lotx, Izaskun eta Xabi Sound *Ikuskizuna*

16:00 - 16:45 Goazen oihanera. Maialen Alfaro. Elkar *Ipuin kontaketa*

17:00 - 17:30 Mendia eta ni. Edurne Urrestarazu eta Irati Peluaga. Ikas *Liburu aurkezpena*

17:45 - 18:15 Mater-altxorrak. Pello Añorga, Jokin Mitxelena eta Izaskun Suberbiola *Liburu aurkezpena*

18:30 - 19:00 Kapa-ipi-xopo, Igeltxo. Pello Añorga. Txalaparta *Liburu aurkezpena*

ABENDUAK 8

10:30 - 11:00 Malen jentila eta basoko melodia. Aingeru Gorrotxategi eta Amaia Ballesteros. Bizkaiko Foru Aldundia *Liburu aurkezpena*

11:15 - 11:45 Gaxuxa eta karramarro magikoa. Alvaro Beñaran eta Mari Seara. Hik Hasi *Ipuin kontaketa*

12:00 - 12:30 Gora Musika eta Korrontzi. Oiane Yarza eta Urko Oskoz. Gora Musika *Disko aurkezpena*

13:30 - 14:30 Txiki festa. Mikel Leibar, Iñigo Agirrezabala eta Argiñe Belakortu. Txulalari *Ikuskizuna*

16:30 - 17:00 Kanutoren anaia. Josan Aramayo *Ipuin kontaketa*

DURANGO +

ABENDUAK 5

10:30 - 20:00 Eskuahaldunak. Ermodo 23 kalean. Eskuahaldunak eskultoreen elkarte *Erakusketa*

11:00 - 20:30 Arbaso azoka. Merkatu plazan. Arbaso artisauen elkarte *Azoka*

11:00 - 21:00 IX. Eixu azoka. Andra Mari elizpean. Eixu artisauen elkarte *Azoka*

ABENDUAK 6

10:30 - 20:00 Eskuahaldunak. Ermodo 23 kalean. Eskuahaldunak eskultoreen elkarte *Erakusketa*

11:00 - 20:30 Arbaso azoka. Merkatu plazan. Arbaso artisauen elkarte *Azoka*

14:30 - 17:30 Hikadromoa. Landako eskolan. Zirhika. *Topaketa*

14:30 - 21:00 IX. Eixu azoka. Andra Mari elizpean. Eixu artisauen elkarte *Azoka*

19:30 - 20:30 Txistua XXI. mendean. Jesuiten Arrupe aretoan. Silboberri txistu elkarte. *Kontzertua*

ABENDUAK 7

10:30 - 20:00 Eskuahaldunak. Ermodo 23 kalean. Eskuahaldunak eskultoreen elkarte *Erakusketa*

11:00 - 20:30 Arbaso azoka. Merkatu plazan. Arbaso artisauen elkarte *Azoka*

11:00 - 21:00 IX. Eixu azoka. Andra Mari elizpean. Eixu artisauen elkarte *Azoka*

11:30 - 17:30 EHko mintzalagunen topaketa. Taupa. Landakon elkargunea. Taupa *Topaketa*

ABENDUAK 8

10:30 - 18:00 Eskuahaldunak. Ermodo 23 kalean. Eskuahaldunak eskultoreen elkarte *Erakusketa*

11:00 - 19:00 Arbaso azoka. Merkatu plazan. Arbaso artisauen elkarte *Azoka*

11:00 - 20:00 IX. Eixu azoka. Andra Mari elizpean. Eixu artisauen elkarte *Azoka*

IZURTZA

nikolas azoka

2025

abenduak 6

11:00 - 15:00

ANTOLATZAILEAK

LAGUNTZAILEAK

BERBAGAILUA – MADALENAKO ERMITA

ABENDUAK 5

11:00 - 12:00 Ez DA! normala.
Durangoko Azoka
Bideopodkasta

12:10 - 13:00 Ez DA! normala.
Durangoko Azoka
Bideopodkasta

16:00 - 17:00 Irakurrieran.
Bizkaia Irratia
Bideopodkasta

18:00 - 18:00 Liburuen Errepublika Txikia. Bilbo Hiria
irratia
Bideopodkasta

ABENDUAK 6

11:00 - 12:00 Berriketan. Berria
Bideopodkasta

13:00 - 14:00 BaDA!bil.
Durangoko Azoka, EITB
Bideopodkasta

17:00 - 18:00 Benetan zabiz.
EITB
Bideopodkasta

ABENDUAK 7

11:00 - 12:00 Kontatzera noazu.
Naiz irratia
Bideopodkasta

13:00 - 14:00 Musikazuzenean.
Hamaika telebista
Bideopodkasta

17:00 - 18:00 Belarrijana. Gedar
telebista
Bideopodkasta

ABENDUAK 8

11:00 - 12:00 Sona. Goiena
telebista
Bideopodkasta

13:00 - 14:00 Flop kultura.
Euskalerrria irratia
Bideopodkasta

ATARTEA – DURANGOKO MUSEOA

ABENDUAK 5

10:00 - 11:00 Zianotipia tailerra. Ikasle goiza *Tailerra*

10:00 - 20:00 Euskal irudigileen ilustrazioak. Irudigileen elkarteak
Erakusketa

11:30 - 12:30 Zianotipia tailerra. Ikasle goiza *Tailerra*

13:00 - 14:00 Harien isla. Sormen Beka DA. Irati Bazeta.
Gerediaga Elkarteak, Durangoko Udala *Inaugurazioa*

ABENDUAK 6

10:00 - 20:00 Euskal irudigileen ilustrazioak. Irudigileen elkarteak
Erakusketa

10:00 - 20:00 Harien isla. Sormen Beka DA. Irati Bazeta.
Gerediaga Elkarteak, Durangoko Udala *Erakusketa*

ABENDUAK 5

11:30 - 12:00 Arrate Rodriguez. Euskal irudigileak *Aurkezpena*

12:00 - 12:30 Iban Galan (Desegin). Euskal irudigileak
Aurkezpena

12:30 - 13:30 Iratxe Reparaz, Arrate Rodriguezegaz. Euskal irudigileak *Solasaldia*

17:30 - 18:00 Olaia Martinez. Euskal irudigileak
Aurkezpena

18:00 - 18:30 Smoke Signal. Euskal irudigileak *Aurkezpena*

18:30 - 19:00 Berexi Art. Euskal irudigileak *Aurkezpena*

19:00 - 19:30 Morirse en Bilbao. Euskal irudigileak *Aurkezpena*

ABENDUAK 6

10:00 - 20:00 Harien isla. Sormen Beka DA. Irati Bazeta.
Gerediaga Elkarteak, Durangoko Udala *Erakusketa*

ABENDUAK 7

10:00 - 20:00 Euskal irudigileen ilustrazioak. Irudigileen elkarteak
Erakusketa

ABENDUAK 5

10:00 - 20:00 Harien isla. Sormen Beka DA. Irati Bazeta.
Gerediaga Elkarteak, Durangoko Udala *Erakusketa*

ABENDUAK 6

10:00 - 20:00 Harien isla. Sormen Beka DA. Irati Bazeta.
Gerediaga Elkarteak, Durangoko Udala *Erakusketa*

ABENDUAK 7

10:00 - 20:00 Harien isla. Sormen Beka DA. Irati Bazeta.
Gerediaga Elkarteak, Durangoko Udala *Erakusketa*

ABENDUAK 8

10:00 - 20:00 Harien isla. Sormen Beka DA. Irati Bazeta.
Gerediaga Elkarteak, Durangoko Udala *Erakusketa*

ESKAINTZA IZARRA

Sofa eraigarria +
135 x 190 zm-ko koltxo
biskoelastikoa.



395 €
(33 € hilabetea)
12 hilabete
interesik
gabe

Colchonerías Bengoa

www.colchoneriasbengoa.com
info@colchoneriasbengoa.com

Fra Juan Zumarraga, 19 (Durango) - 944 650 859
San Pedro, 35 ezk. Ixerango (Zornotza) - 946 855 662

"Aldaketekin gatoz, baina esentziari eutsita"

FITOSKINS MUSIKA

Fitoskins talde elorriarrak 'Umiltasuna' disko berria besapean duela zapalduko du Landako Gunea; lagun artean aurkeztuko dute diskoa, abenduaren 20an, Elorrion

Aritz Maldonado ELORRIO

Doinu akustikoak guztiz albo-ratu barik, esentziari eutsita, Fitoskins talde elorriarra elektrikoago eta laukote formatuan bueltatu da. Zazpi abestiko *Umiltasuna* lan berria aurkeztuko dute Durangoko Azokan; Haritz Orbegozo bateria-jotzailea batu zaie Mario Cruz, Txaber Mendez eta Andoni Orbegozi. Zaleei ale fisikoak erosteko gonbita egin diete, taldeari laguntzeko aukerarik onena izateaz gainera, gehien gozatzen dena delako. Oraingoz, Azokan ez ezik Elorrioko Urre Berri tabernan ere egongo da diskoa erosteko aukera.



Andoni Orbegozo, Mario Cruz, Haritz Orbegozo eta Txaber Mendez. IZARO GALLASTEGI

Disko berria aldaketekin dator, baina esentzia mantetzen duzue. Zer da 'Umiltasuna'?

Mario Cruz: Formazioa aldatu eta abestiei bateria sartzeko gogoia genuen aspalditik. Abestiek, baina, esentzia mantentzen dute, ahotsen melodia, harmonika, gitarra akustikoaren distira. Horiek dira gure ezaugarriak, eta hor daude.

Andoni Orbegozo: Zuzenean ere bateria gehitu gura genuen, kontzertuak akustikoan ere joko ditugun arren.

Txaber Mendez: Gai sakonak jorratzen ditugu berbetan: minbizia, Saharako gatazka, nazien aurkako beste bat ere badago... Sahararen aldeko kanta umiltasunari egindakoa da, eta izen polita iruditu zitzaigun diskoa izendatzeko.

Aitor Ariñogaz grabatu duzue berriro, Lorentzo Recordsen.

T. M.: Aurrekoan oso gustura ibili ginen, eta orain, elkar eza gutzen dugunez, oraindino hobeto.

M. C.: Konfiantza dugu, eta akustikoan eta harmonika grabatzeko ere ondo konpondu gara.

Spotifyren aurkako kanpainara batu zarete.

A. O.: Uste dugu ezin garela besoak gurutzatuta egon Palestinan gertatzen dabilen genozidioagaz. Spotifyk bertan duen arduragaitik, boikot deialdira batzea erabaki dugu. Sare sozialetan ere azaldu dugu zergaitik utzi dugun, eta plataforma alternatiboak begiratzera gonbidatu ditugu jarraitzaileak. Azken finean, boikota gauzatu dezaketenak entzuleak eurar dira. Beste talde batzuk ere gonbidatu ditugu ekimenera batzeko.

T. M.: Lokalean asko eztabaidatu genuen, eta, azkenean, pausoa ematea erabaki genuen.

Elorrion aurkeztuko duzue, abenduaren 20an.

M. C.: Diskoan lagun ugari parte hartu dute; besteak beste, Aurrez Aurre, Nekktar, Estutu eta Poco Equipaje taldeetako jendeak, eta abenduaren 20ko aurkezpenean egongo dira. Aurretik, Urre Berri tabernan KSKA kolektiboko lagunak egongo dira eguna girotzen, eta, ondoren, Bikalen ere jaia egongo da. Jende askok lagundu digu diskoagaz. Diseinuaz, adibidez, Aritzillo arduratu da.

Energia eredua **aldatzera** goaz. Bazatoz?

Abenduaren 11an 18:30ean San Agustinen
Durangoko Energia Komunitatearen aurkezpena

 Durangoko
energia
komunitatea

Elkarrekin, haurren minbiziaren aurka!

Zure erosketak La Paz Haur Ospitaleko Terapia Aurreratuen CRIS Unitatearen ikerketan laguntzen du.



SUPERHERO
28 cm. Unit.

6,99 €

2€

Zure One Two Fun
jostailuaren
diruzaintza

1%

ONE TWO FUN

Alcampo
DURANGO

Montorreta Industrialdea, 1 ST3 errepidea.

Cris

INVESTIGACIÓN PARA
OTRA OPORTUNIDAD

Alcampo



Garrantzizkoari
begiratzen

OSTALARITZA GIDA



SORGIN

Ibaizabal 4C,
Durango
Tel.: 678 586 143



Terraza berria, pintxo berriak,
txibierroak, janari minak,
errazioak, musika zuzenean.
Zatoz eta goza gaitzazu!



ARRIPU

Gure berezitasuna tortillak
dira, 19 zapore ditugu
aukeratzeko, eta denak
primerako osagaiekin
egindakoak, noski.

Txibitena, 9 Durango
Tel.: 602 387 814



Merkatu plaza
Durango



GAUARGI

Dantzari, 4 behea
lurreta
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak.
Barikuetan mollete eta errazioak.
Domeketan rabak eta askotariko
errazioak.



XIBERU

Zezilia Gallartzagoitia, 9
Zornotza
Tel.: 946 181 758

Gosari bereziak egunero,
pintxopotea egunero eta afariak
asteburuer. Giro alaia eta
atsegina. Ongi etorri Xiberura.



INTXAURRE ELKARTEA

Balbino Garitaonandia
plaza, Durango
Tel.: 946 200 007

Baserri bat baino zerbait gehiago.
Bokatak eta pintxoak egunero.
Euskal preso eta iheslariak
azokara!



OLAJAUREGI

Kurutziaga, 52
Durango
Tel.: 946 200 864

Azokako egunetan menu berezia.
Ikusi nahi duzu? Sartu gure
webgunera, olajauregi.com
eta erreserbatu.

OSTALARITZA GIDA



HERRIA

Askatasun etorbidea, 28
Durango
Tel.: 946 810 513

Astelehenetik barikura goizeko 6etatik aurrera zabalik, asteburuetan 08:00etatik aurrera. Pintxoak eta gosariak. Asteburuetan rabak. Giro polita! Zatoz!



RUGBY

Goienkale, 18
Durango
Tel.: 946 200 007

Kirola eta kultura uztartuz euskara bultzatzen dugu. Azokan zehar taloak salgai tabernan.



EL BOTXO

Murueta Torre auzunea 8A
Durango
Tel.: 641 022 429

Hasierakoak, entsaladak, ogitartekoak, hot dog-ak, hanburgesak, sandwichak eta plater konbinatuak. Azoka gunearen aurrez aurre gaude.



BODEGON GAUR

Mikeldi, 2 behea 1
Durango
Tel.: 612 527 436

- Askotariko pintxoak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Patata frijituak
- Errazioak



ALINÉ



Astxiki Kalea, 8
Durango
Tel.: 633 292 823

Postreak, ogitartekoak, errazioak eta momentuan eginiko jakiak eskaintzen ditugu.



AXPE

Ermodo, 12
Durango
@axpe_durango

Errazioak, ogitartekoak eta giro paregabea Azoka egunetan!



OIERDI

Herriko gudarien kalea, 8
Durango
Tel.: 946 129 824

Pintxoak, gosariak eta errazioak asteburuetan.



LEZURI

Fray Juan de Zumarraga, 13
Durango
Tel.: 946 810 858

- Egunero gosariak, bazkariak eta afariak ematen ditugu.
- Sukaldea egun guztian zehar zabalik dago.

OSTALARITZA GIDA



ZAZPI

Ibaizabal auzunea, 1-1A
Durango
Tel: 944 175 500

Ogitartekoak, pintxoak, gazta-tarta eta etxeko bizkotxoak. Errazioak jai egunetan eta asteburuetan. Tostadak asteburuetan. Zatoz eta gozatu gure terrazaz azokatik metro gutxira.



XIXILU

Oñiturri, 4
Durango
Tel: 722 674 940

Gosariak - Egunekeo menua
Karta - Pintxoak - Ostrak
asteburuetan. Artisau-garardo
mota asko. Etorri dastatzera!



PERRATXIKA

Astxiki, 1
Durango
Tel: 679 894 402

Errazio bereziak astegun eta asteburuetan. Saiheskia eztiarekin. Askotariko kroketak. Olagarroa *mojo picón* erara.



IBAIZABAL

Ibaizabal Etxetaldea,
2B Durango
Tel.: 946 550 185

Plater konbinatuak,
hanburgesak, ogitartekoak
eta kazolatxoak.



ZERO

Andra Mari, 6
Durango
Tel.: 946 812 222

Zatoz eta gozatu kafe ona, gure askotariko pintxoak, asteburuetako afariak, eta gure mojito eta gin-tonic bereziak.



MIKELDI

Kalebarria, 7
Durango
Tel.: 944 073 988


Gosari eta pintxo aukera handia, giro ezin hobean.



TXO BY LES VILLES

San Roke Kalea 17,
Durango
Tel.: 94 621 83 39

Gosariak egunero 12:00ak arte. Bazkariak asteburuetan. Afariak egunero.



LES VILLES

Kanpatorrosteta, 1
Durango
Tel.: 94 466 84 82

Astelehenetik barikura eguneko menua. Asteburuetan menu berezia. Karta egunero: plater konbinatuak, hanburgesak, sandwichak, bokatak,



OSTALARITZA GIDA

Koldo Berria

Itsaski entsalada sagar
ali-oli arinarekin.
Trufaz beteriko arrautza
65°tan ondoekin.
Bakailaoa txangurruarekin.
Txahal txuleta zatitua.
Etxeko postrea.

Menuaren prezioa 49,50€ BEZ-a barne.
Menuak mahai osokoa izan behar du
Ez ditu edariak barne hartzen

KOBIKA

San Inazio auzunea, 8
Durango
Tel.: 946 810 003



BOTAFUMEIRO

Olleria, 10
Durango
Tel.: 946 216 036

Galizia zatitxo bat Durangon,
bere espezialitateekin:
Olagarroa, arrainak, eta haragia
txingarretan.



PIZTU

Josemiel Barandiaran 8 behea
Durango
Tel.: 685 152 188

Azoka egunetan etorri gure
gosari, pintxo, hanbursesak
eta tortilla goxoak jatera
eta afaltzera.



LA GUIPUZKOANA

Bixente Kapanaga 2, behea
Iurreta
Tel.: 946 81 10 05

TXULETOIA. Hanbursesak.
Menu bereziak. Plater
Pintxoak. konbinatuak.
Ogitartekoak.



LAPIKO

Francisco Ibarra Kalea, 3
Durango
Tel.: 946 52 26 69
www.lapikoberria.com

Abenduaren 6an, 7an eta 8an bi
menu izango ditugu. 20€ eta 25€-tan
Ogitartekoak ere baditugu: txorizoa
sagardotan edo askotariko tortillak.



ZELAIETAKO JUBILATUAK

Solozabal, 1 baxua
Abadiño
Tel.: 671 286 104

Nagusi, gazte eta umeen etxea.
Bariku eta zapatuetan afariak.
Domeketan gluten bako raba eta
zanburiñak. Enkarguak.
Kontzertuak eta erakusketak. Hator!

IURRETAKO NAGUSIEN UDAL ZENTROA

Bixente Kapanaga 9,
Iurreta
Tel.: 669 601 122

Ogitarteakoak eta
plater konbinatuak.



MESOI BARRIA

Kalebarria, 1
Durango
Tel.: 94 603 03 41

Etorri gure eguneko menua eta
askotariko pintxo eta errazioak
dastatzera!





lazko aldiak 30.000 bisitaritik gora izan zituen.

Euskal Dendako 53 postuetatik 15 lehenengoz etorriko dira

Euskal Dendak 29. aldia beteko du abenduaren 5etik 8ra merkatu plazan. Itziar Ituño aktoreak irekiera ekitaldian parte hartuko du. lazko bisitari kopurua berdintzea edo gainditzea dute helburu. Aurten etorriko diren postuetatik % 28 nobedadeak izango dira

J.Derteano EUSKAL DENDA

Durangoko Azokako egunetan merkatu plaza Euskal Herriko artisauen erakusleho erraldoi bihurtuko da aurten ere. Abenduaren 5etik 8ra, Euskal Dendak 29. aldia beteko du bertan, Arbaso elkarteak antolatuta. Merkatu plazako luze-zabalean artisauen aurtengo sorkuntzak eta lanak ikusteko eta erosteko aukera izango dute bisitariak.

Euskal Dendak abenduaren 5eko barikuan zabalduko ditu ateak. Urtero legez, irekiera ekitaldia egingo dute Arbasoko eta askotariko erakundeetako ordezkariak. Ordutegi hau izango du lehenengo hiru egunetan: 11:00etatik 14:30era eta 16:30etik 20:30era. Abenduaren 8an, oster, 19:00etan itxiko ditu ateak, hau da, aurreko egunetan baino ordu eta erdi lehenago.

Iazko aldia arrakastatsua izan zen eta 30.000 bisitaritik gora jaso zituen, nahiz eta eguraldiak ez zuen lagundu. Egunik jendetsuena lehenengoa izan zen, 13.000 bisitari ingurugaz. Antolatzaileek kopuru hori berdintzea edo gainditzea itxaroten dute aurten.

53 postu guztira

Aurten 53 postu ipiniko dituzte, iazko kopuru bera. Merkatu Plazan ipini daitekeen gehieneko postu kopurua da. Zenbakiei dagokien, ohikoa den moduan, Bizkaiko sektoreak izango du ordezkariarik handiena, 30 postugaz. Iaz baino bi gutxiago dira. Hurrengo, Gipuzkoa dator, hamar postugaz, iaz baino bat gehiago. Nafarroatik bederatzi etorriko dira, iaz baino bi gehiago, eta Arabatik lau, 2024an baino bat

gutxiago. Eurretari batzuek lehenengoz zapalduko dute Merkatu Plaza.

Datuak sektoreka emanda, ehungintzari lotutako artisauak dira nagusi oraindino, 11 postugaz. Horien artean denerik aurkitu daiteke: jantziak, osagarriak... Kopuruekin jarraituta, bitxigintzaren ingurukoak datoz ondoren, zazpi postugaz. Bisuteria eta zeramika gremioek launa stand izango dituzte. Horrez gainera, larru, kosmetika, feltro, ilustrazio, jostailu, oinetako, kakoratz eta makramearen inguruko postuak ere izango dira, besteak beste.

**EHUNGINTZARI
LOTUTAKO ARTISAUAK
DIRA NAGUSI
ORAINDINO,
11 POSTUGAZ**

Era berean, nekazaritzako elikagaien sektoreak bere lekua mantentzen du Euskal Dendan, sei postugaz. Ez dira faltako Garrarteko garrapiñatuak, Lorez Loreren ezti, Ziorregiko gaztak, Katealdeko pate, Goe-nagaren jogurtak eta Gorrotxategiren txokolateak.

15 postu, lehenengoz

Aurten 15 dira Euskal Dendara lehenengoz etorriko diren postuak. Hau da, kopuru osotik % 28 berriak izango dira. Bizkaitik zazpi proiektu izango dute estreinaldia: zeramika eta ehungintzako Hemen Proiektua, bitxigintzako Ganboa eta Bixiart, ehungintzako Harri Koskor, Laurky Cotton eta Iruten, eta jantzi tradizionalen inguruko Beletxera.

Arabatik enpresa berri bi datoz: Membrilla, koadernaketa-gremiokoa, eta Madear, egurgintzako gremiokoa. Gipuzkoatik Marta Portela trikotatzailea eta ilustrazioaren inguruko EM Zirrimarra dira nobedadeak. Nafarroatik Ixiart zurezko tailugilea eta Pimfa —olibondo egurragaz egindako sorkuntzak— lehenengoz etorriko dira Durangora. Gainerako nobedadeak elikadura arlokoak izango dira.

Eskualdeko postuak

Durangaldeak sei postu izango ditu aurtengo Euskal Dendan: Eneko bitxiak, Veletta, Gorakat, Nudamé, Politena eta Harri

Koskor. Azken hau lehenengoz etorriko da azoka honetara.

Eneko Unzalu mañariarra Euskal Dendako beteranoetarikoa bat da. Urtea joan eta urtea etorri ez du hitzordura hutsik egiten. Aurten ere, berak eginiko mota guztietako bitxiak erakutsiko ditu. Elorrioko Gorakat dendakoen poltsek eta motxilek beteko dute beste stand bat. Aurten urte berezia dute, 10. urteurrena ospatzen baitute, eta zortzigarren urtez izango dira Euskal Dendan. Durangoko Velettaren produktu izarrek toteak eta motxilak dira. Eskari bidez lan egiten du, Interneten (www.veletta.shop) eta sare sozialetan Instagramen (@myveletta). Bestalde, Zornotzako Vanina Seguik ehunagaz egindako produktuak eramango ditu.

Berrizko Nudamé-k iaz parte hartu zuen lehenengoz, eta aurten berriro etortzea erabaki du. Makramea lantzen dute. Hauek dira sortzen dituzten produktu batzuk: txakurrentzako lepokoak eta uhalak, animalientzako kabestruak, eta loreontziak sabaitik eskegitzeko euskarriak.

Otxandioko Harri Koskorrek lehenegoz bisitatuko du Euskal Denda. Eguneroko beharrian erantzuteko produktuak sortzen dituzte oihalekin: eskolarako materiala, nezeserrak, meriendako poltsak, mugikorren kargagailuetarako zorroak eta gehiago...



Nekane Ortiz de Zarate, bere askotariko produktuekin.

"Halako azokek biharamun emozional handia dakarte"

Nekane Ortiz de Zaratek lehenengoz parte hartuko du Euskal Dendan, Otxandioko Harri Koskor proiektuagaz. Egunotan buru-belarri dabil lanean tailerrean, eskaintza zabala prest izateko. Adin guztiei begirako askotariko osagarriak eramango ditu

J.Derteano OTXANDIO

Pozik zaude Euskal Dendan parte hartzeagaz?

Oso pozik. Euskal Denda Euskal Herriko erakustokia da. Denok plaza horretan parte hartu gura dugu. Beraz, bai, oso pozik nago, eta urduri ere bai, ze azkenean gehiago ekoiztu behar duzu eta esku bi baino ez dauzkat, eta egunak 24 ordu.

Ekoizpenean buru-belarri sartuta ibili zara?

Bai, eta, gainera, lehenengo aldia izanda, ez dakizu zenbat ekoiztu behar duzun ere. Nire beldurrik handiena gauza barik geratzea da. Azken egunean datorren bisitariak postuan nire produktuen sorta zabal bat aurkitzea gura dut. Orduan, josi eta josi nabil, bai.

Zer aurkituko dugu Harri Koskorren standera bagoaz?

Familia guztientzat oihalezko osagarriak egiten ditut, bai umeentzat bai adin guztietako jendearentzat. Berez, haurdun geratu nintzenean, alabarentzat gauzak sortzen hasi nintzen. Ume txikientzako gauzak egiten hasi nintzen. Gero umea handitzen joan zen eta helburua

familiako beharrak asetzeko produktuak sortzea izan da. Alabak hamabi urte ditu orain. Umeentzako adur-zapiak, txupeteetarako poltsak, panpina-txoak, errotuladore-zorroak, ogitarteko-zorroak, ileko apain-garriak (zintak, diademak, gantxitoak...) egiten ditut eta azokan salgai egongo dira.

Eta nagusiei begira?

Nagusientzat diru-zorroak, tabako-ontziak, motxilak, ileko apaingarriak eta horrelako produktuak ditut. Baita zero zabor produktuak ere: maki-llajea kentzeko paper-zapiak, berrerabilgarriak direnak... Gura duenak Instagram sare sozialean ikusi dezake nire ekoizpena (@harrikoskor).

Azken urteetan zertan aldatu da Harri Koskor?

Orain dela urte bi artisau ziurtagiria lortu nuen, eta harrezkero beste plaza batzuk zabaldu zaizkit. Orain dela bost bat urte Otxandion eta inguruko herrietan ibiltzen nintzen gehiago, eta orain azokarik azoka gehiago mugitzen naiz. Ehuneko ehunean nago honetan eta ogibide legez ikusten dut. Alde horretatik, aldaketa bat igarri dut.

Zer azokatan ibili zara orain arte?

Orain arte eguneko azoketan ibili naiz batez ere, beti Euskal Herrian. Ipar Euskal Herria oraindino ez dut zapaldu, baina, bestela, denean ibili naiz: Araban, Bizkaian, Gipuzkoan, Nafarroan... Aurten Gasteizen parte hartu dut lehenengoz, eta Lekeition ere bai, Erdi Aroko azokan. Hiru eguneko azokak dira. Horiek izan dira egin ditudan luze bakarrak. Niretzat berria da lau eguneko azoka egitea, Euskal Dendan gertatuko den moduan.

Azokek laguntzen dute bezeroekin aurrez aurreko hartu-emana izaten?

Bai. Asko, gainera! Tratu pertsonala asko gustatzen zait, sare sozialak baino gehiago. Hobeto moldatzen naiz. Azokek eskaintzen duten aurrez aurreko horrek balio handia du.

Zeintzuk dira arrakastarik handiena duten produktuak?

Produktu zehatz batena baino gehiago, eskaria sasoian sasoi-ko produktuen izaten da. Esaterako, ikasturte hasieran ogitarteko-zorroak, poltsek eta halakoek izaten dute eskaririk handiena. Negu partean buff-ek... Eta udan turbanteek, karteratxoek... Eskaria aldatu egiten da sasoi batetik bestera.

Euskal Denda zer sentsazioagaz amaitzea gustatuko litzazuke?

Horrelako azokek biharamun emozional handia dakarte. Jende asko pasatzen da, aspaldi-aspaldi ikusi ez duzun jendea ere bai. Gainera, inguruko postu-koekin beste lotura bat egiten duzu; izan ere, eguerdiko atsedenean eta ateak ixten direnean, gure artean berba egiten dugu eta gure arteko sarea indartu egiten da. Gero, norbere bizipenak daude: postua zelan atondu eta zaindu, ezustekoei eta gorabeheriei zelan aurre egin... Nik neuk garrantzi handia ematen diet bizipen horiei guztiei. Jakina, salmentak ere inportanteak dira, baina ez naiz horregaz bakarrik geratzen.

"NIRETZAT BERRIA DA LAU EGUNeko AZOKA BATEN PARTE HARTZEA, EUSKAL DENDAN LEGEZ"




Euskal Herriko Artisautzaren Azoka

29

EUSKAL DENDA

2025 Abenduak 5 - 8

Durangoko Azoka Plazan

ORDUTEGIA: 11:00-14:30 / 16:30-20:30

facebook.com/arbasa

@arbasa_artsania

Ekaitz Herrera HAUR LITERATURA

Liburua frantsesez sortu zenuen, 'La Collectionneuse' izenpean, eta euskarara ekarri duzu orain.

Jatorrizko liburua Sarbacane argitaletxeak argitaratu zuen, 2024an. Jolas moduko liburua zen, eta euskarazko honek, aldiz, istorio eta testu gehiago du, nahiz eta jolasa ere baduen. Jatorrizko argitalpena oso testu gutxi-rekin sortu nuen, eta editoreari esker honako honek beste forma bat hartu du. Liburua aberastu egin da.

Zelako harrera izan du Frantzia?

Hainbat sariketatan izan da finalista; tartean, Prix Landerneau entzutetsuan. Harrera ona izan du, egia esan, eta errusierara ere itzuli dute. Espero ez nuen zer bait izan da, kanpotarra izanda ez delako batere erraza Frantziako merkatuan sartzea.

Sagutxo baten gorabeherak eta sormena jaso dituzu istorioan.

Amona bakarrik bizi da eta istorioak kontatzen dizkio katuari. Baina amonak ez daki beste entzule bat ere badaukala etxean: sagua. Eta saguari eskerrak gauzak gertatzen hasten dira, nahiz eta amonak jakin ez. Saguak

"Istorioek lotuta gaude, eta istorioetarako bizi gara"

LEIRE SALABERRIA URDANPILLETA ILUSTRATZAILEA ETA IDAZLEA

Ilustratzaile andoaindarrak 'Sagu Bildumagilea' aurkeztuko du zapatuan, azaroak 29, Artekan. Aurkezpena egiteaz gainera, tailerra emango du. 12:00etan izango da



Leire Salaberria, 'Sagu bildumagilea' eskuetan. LEIRE SALABERRIA

amonaren istorioak entzuten ditu, eta, orduan, objektuen bilduma egiten hasiko da, gero bere istorio propioak sortzeko. Beraz, badago pertsonaia bat berak eragiten duen ondorio horietaz ohartzen ez dena. Azken finean, istorioak hori ere badira, ezta? Liburu bat irakurtzen dugunean eta horrek gure bizitzan eragiten duenean, beste bati istorio bat kontatzen diogunean... hor erlazio ugari dago. Uste dut denok gaudela istorioen bidez lotuta, istorioengatik bizi garela. Polita da horrekin jolastea.

Ume batek bere kabuz irakurtzeko moduko liburua da?

Lau urtetik aurrerakoentzako liburua da. Hortik aurrera, adin tarte bakoitzean modu batera edo bestera irakurriko da liburua. Adibidez, txikienei erakargarria egiten zaie sagu bat ezkutuan egotea, jolas hori. Liburua Frantziako eskola askotan erabili dute saguaren jokabidea aztertzeko. Etxean lantzeko ere polita izan daiteke.

Publiko exigentea da umeena?

Baietz esango nuke. Ez dute gezurrik esaten. Gustatzen ez bazaio, umeak argi eta garbi esango dizu. Horregatik gustatzen zait aurkezpenetan umeak egotea, eurentzako liburua delako. Etxean zortekoa naiz. Bi ume ditugu, eta, beraz, baditut nire kritikariak! Haiekin egiten ditut probak!

Zapatuan, Artekan izango zaitugu liburua aurkezten eta tailerra egiten.

Liburua aurkezteaz gainera, tailertxo bat egingo dugu, liburua zelan irakurri eta liburutik zer atera daitekeen azaltzeko. Jatorrizko ilustrazioak ere erakutsiko ditut, handiak, eskuz eginikoak. Liburuak eta albumak maite dituzten pertsona txiki zein helduak gonbidatuta daude goiz-pasa polita egitera.

enpresa-bilera ospakizunak urtebetetze jaunartze bataio

DURANGON ORDUKAKO
TXOKO ALOKAIKURIA

688 861 975
zuretxokoa@gmail.com

ZURE txokoa

www.zuretxokoa.com

Komertakur 23 betria, 5. o. - 48.200 Durango - BAZKANA

lizentziak, proiektuak eta obraren zuzendaritza

jazz solutions

barne diseinua

kudeaketa bisuala

lan guneak

Durangoko Plateruen Plaza, 12 bajo - Durango

94 621 59 64

www.jazzsolutions.es

REA:15/48/001/2057
KZ: 0544-BI

T3 tabiraberezi

Telekomunikazioak
Informatika

Pol. Ind. Aliendalde 11F
48200 Durango

94 681 22 04

info@tabiraberezi.com
www.tabiraberezi.com

DESQUACES PILASTRA

Fauste auzoa 18, Iurreta
Tel: 946 201 787

Ibilgailuak tratatzeko eta deskutsatzeko baimendutako zentroa gara. Desegiteko ibilgailuak erosten eta marka guztietako pieza erabiliak saltzen lan egiten dugu.



"Aspalditik zebilkidan buruan alegia bat idazteko gogoa"

XABIER OLASO IDAZLEA

'Untxiki baso miresgarrian' aurkeztuko du Azokan

A.B. OTXANDIO

Xabier Olaso idazle otxandiarra haur literaturan murgilduta dabil azken urteetan. Txikien arreta erakarriko duten pertsonaiak eta giro egokiak sortzeari erronka handia deritzo. Era berean, oso kitzikagarria.

Zelan sortu zen 'Untxiki baso miresgarrian' liburua?

Untxiki baso miresgarrian (Denonartean, 2025) alegia bat da. Aspalditxotik zebilkidan buruan. Prosan idatzita dago eta sei kapitulu laburrez osatuta dago. Untxiki pertsonaia nagusia da, Urbiako zelaietan bizi den untxia. Azeri batengandik ihesean dabilela, untxi-zulo batean sartu eta baso miresgarri batera helduko da. Animalia bereziak ezagutuko ditu han. Batzuk on eta lagunkoia, eta beste batzuk gaizkile eta erasotzaileak. Untxi txikiak bereak eta bi egingo ditu horien guztien erasoetatik bizirik irtekeko. Ikaskizun batez gain amaitzen da kontakizuna, adiskidetasuna, adimena eta ausardia dohain handiak direla.

Irudiak Jokin Mitxelenarenak dira. Bai. Irudiak jaso nituenean, benetan politak iruditu zitzaizkidan, aukera-aukerakoak, eta harrituta geratu nintzen Mitxelenak sortutako mundua ikusita. Irudi koloretsuak dira, eta ezinbestekoak alegiaren osaketan. Benetan estimatzen dut bere lana.

Azkenengoz, jolasteko ipuin bat aurkeztu zenuen azokan. Hau beste proposamen bat da.

Mihi-puntaren puntan (Elkar, 2023) 365 igarkizunek osatzen

zuten; liburuak urteko egun bakoitzean igarkizun bat asmatzeko proposamena ematen du. Pieza laburrez osatuta dago, eta, igarkizunak izanik, lotura zuzena du errimekin, erritmoagaz eta poesiagaz. Liburu hau, oster, beste era batekoa da. Kontakizuna du haria, prosa. Amaieran, alegiaren ikasbideak berebiziko garrantzia hartzen du. Dena dela, liburu biek antzeko ezaugarriak dituzte: bai igarkizuna bai alegia, biak ala biak, tradizioz behintzat, ahoko literaturan errotuta daude.

Hainbat itzulpen lan ere egin duzu. 'Aurpegia', 'Eguberri on, otso basatia', 'Eta postaria gutun bihurtu zen' eta Sherlock Shator bildumako liburu bi.

Itzulpena barik egokitzena da *Aurpegia* (Pamiela, 2026), asko maite dudana *Ilargian kulunkantari* bildumako liburuki berria. Ikus-poema errexitagarria da, piktograma poetikoz osaturikoa. Errima eta erritmoa nagusi dira eta haur txikiekin abesteko aukera ematen du. Besteak Ibaizabalek argitaratutakoak dira, denak proposamen paregabeak irakurzaletasuna bultzatzeko.

Baduzu beste proiekturik esku artean?

Aspalditxoan sortutako mikro ipuinak ditut han-hemen idatzita, helduentzat. Aspaldiko kontuak dira. Horiek guztiek taxuketa beharko lukete. Aurrerantzean, horietan ipini beharko nuke arreta. Bestalde, berriro ere haur-poesiari heldu gura nioke, eta zeozer berria sortu esparru horretan. Gero geroakoak.

20 EUSKADI
25 LITERATURA
SARIAK



EZAGUTU
SARITUTAKO
LANAK





Amets Aranguren. EITB

"Nostalgiaren inguruan arituko gara podcastean"

AMETS ARANGUREN BADABIL PODCASTAREN AURKEZLEA

Bideopodcastak boladan dauden sasoi honetan, Arangurenek BaDAbil saioaren hirugarren denboraldiko azken solasaldia grabatuko du Durangoko Azokan

Jone Guenetxea AZOKA

Podcasten Berbagailua gune berria estreinatuko dute Azokan, Madalenako ermitan. Amets Aranguren (Iruñea, 1998) BaDAbil EITBren bideopodcasten denboraldiko azken saioa grabatuko du bertan, abenduaren 6an, 13:00etan.

Leku berezi baten grabatuko duzue saioa, Madalenako ermitan.

Bai. Hori entzutean sorpresa hartu nuen. Pentsatzen nuen beste urte batzuetan Ahotsenean egiten zen moduan izanen zela, karpa baten edo horrelako guneren baten. Harritu egin ninduen, baina ziur naiz leku horrek giro intimoa edo polita sortzen lagunduko duela.

BaDAbil-en hirugarren denboraldia izango da hau. Zelako garapena izan du urte hauetan?

Planteamendu aldetik ez da gehiegi aldatu. Hiru edizioetan bost atal izan dira. Lehenengoan ez zen zuzenkorik egon, baina, bestela, bost atal horiek mantendu dira. Grabatutako bost atal horietako bakoitzean hiru gonbidatu izan dira eta kulturaren munduko gai konkretu baten inguruan hitz egin dute. Pertsonalki, lehenengotik hirugarrenera esperientzia apur bat hartu dudala nabaritu dut. Aurreko edizioak akatsetatik ikasten jakin dut, eta hobetu daitezkeen gauzak hobetzen.

Hiru urteko esperientziagaz, erosoago sentitzen zara lan horretan?

Ez naiz oso ona kamera aurrean. Kostatu egiten zait eta ez nago bereziki eroso. Horrek asko baldintzatu izan nau, batez ere lehenengo edizioan, oso presente neukan eta. Gutxienez egonezin hori ezkutatzeko ikasi dut, edo kamera hor dagoela apur bat ahazten, hiru solaskide oso interesgarriren elkarrizketan parte hartu ahal izateko.

Zein da aurtengo BaDAbil-en planteamendua?

Bost atal urrian zehar grabatu genituen. Azkenengo zuzenean egiten dugu. Iaz ere egin genuen bezala, kasu honetan larunbat eguerdian izanen da.

Zein mahai-inguru prestatuko duzue podcast horretarako?

Elkarrizketatuak ezin ditut aurreratu, baina gaia bai. Nostalgiaren inguruan arituko gara.

Zein zentzutan hartuko duzue nostalgia abiapuntu legez?

Asko hitz egiten da, musikari dagokionez behintzat, oso joera nostalgikoa izaten dugula Euskal Herrian. Garai batean izen handia izan zuten talde batzuk itzuli egin dira, eta nahiz eta bere garaian ezagutu ez, jende gazte asko hurbildu da euren musikara eta joan da euren kontzertuetara; besteak beste, Hertzainak-en zein Muguruzaren kontzertuetara. Hauxe izango litzateke gogoa: ea benetan iragan horri lotuta gauden, ea horrek baduen zentzurik, ea gehiago den mitoa beste ezer baino gehiago, eta ea gaur egungoari benetan erreparatzen diogun. Hala ere, gaia edozein izanik ere, elkarrizketako pisua solaskideek eurek hartzen dute, ez nik.

Aurkezle legez, zein da zure lan egiteko modua?

Hiru edizio hauetan zehar ikasi dudana beste gauzetako bat da hori. Nire ustez, hauxe da aurkezle on baten lana: ahalik eta gutxien esku hartuta, solaskideengan ahalik eta gehien sorraraztea. Beraz, abiapuntua ematea da nire asmoa beti, aitzakiaren bat ematea gaiari ekiteko, baina, hortik aurrera, elkarrizketa solaskideek eurek eramatea iruditzen zait interesgarriena.



*Ikasiz Goza
Ezazu !*

www.aquariumss.com

AQUARIUM
BIBOTIA SAN SEBASTIAN